| 4.71 Diagrama: | Gipuzkoako 5 edukiontzidun bilketa sistemako etxe hondakinen gainerako frakzioaren batez besteko konposizio xehatua .....                                                      | 122 |
| 4.72 Diagrama: | Gipuzkoako 5 edukiontzidun bilketa sistemako gainerako frakzioaren tarte xehatuak .....                                                                                        | 123 |
| 4.73 Diagrama: | Gipuzkoako 4 eta 5 edukiontzidun bilketa sistemetako etxe hondakinen gainerako frakzioaren karakterizazio emaitzen alderaketa .....                                            | 125 |
| 4.74 Diagrama: | Atez Ate, 4 eta 5 edukiontzidun bilketa sistemetako etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioen tarte alderaketa .....                                              | 126 |
| 4.75 Diagrama: | Gipuzkoako etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren batez besteko konposizio orokorra .....                                                                    | 127 |
| 4.76 Diagrama: | Gipuzkoako etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren tarte orokorrak .....                                                                                      | 128 |
| 4.77 Diagrama: | Gipuzkoako etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren batazbesteko konposizio xehatua .....                                                                      | 128 |
| 4.78 Diagrama: | Gipuzkoako etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren tarte xehatuak .....                                                                                       | 129 |
| 4.79 Diagrama: | Gipuzkoako etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren materia Errefusa-Birziklagarria banaketa .....                                                             | 130 |
| 4.80 Diagrama: | Gipuzkoako etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren materia errefusaren konposizioa .....                                                                      | 130 |
| 4.81 Diagrama: | Gipuzkoako etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren materia birziklagarriaren konposizioa .....                                                                | 130 |
| 4.82 Diagrama: | Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren konposizio alderaketa .....                                                                                              | 131 |

## IRUDIEN AURKIBIDEA

### 3.atala

|             |                                                                                            |    |
|-------------|--------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 3.1 Irudia: | Gipuzkoako Mankomunitateen mapa .....                                                      | 26 |
| 3.2 Irudia: | Bilketa sistemaren arabera Gipuzkoako zentsu sekzioen sailkapena .....                     | 28 |
| 3.3 Irudia: | Hiri lurra edo hiri lurra ez denaren arabera Gipuzkoako zentsu sekzioen sailkapena .....   | 30 |
| 3.4 Irudia: | Jarduera komertzialaren dentsitatearen arabera Gipuzkoako zentsu sekzioen sailkapena ..... | 32 |
| 3.5 Irudia: | Estratuen arabera Gipuzkoako zentsu sekzioen banaketa .....                                | 34 |
| 3.6 Irudia: | Eragin-eremuen definizioarako Voronoï modeloa .....                                        | 40 |

### 4.atala

|             |                                                      |    |
|-------------|------------------------------------------------------|----|
| 4.1 Irudia: | Laginketa kanpainako laginen kokalekuen mapa .....   | 50 |
| 4.2 Irudia: | Karakterizazio guneen kokalekuak (zabortegiak) ..... | 57 |

---

## **GIPUZKOAKO ETXE HONDAKINEN ETA MERKATARITZA HONDAKINEN GAINERAKO FRAKZIOAREN METODOLOGIA ETA KARAKTERIZAZIOA**

---

### **LABURPENA**

Gipuzkoako Foru Aldundiak maiztasunez hiri hondakin solidoen karakterizazioak gauzatzen dihardu, beraien konposaketa ezagutuz, prebentzio, kudeaketa eta tratamendu politikak diseinatzeko.

Gipuzkoako hiri hondakin solidoei dagozkien azken karakterizazioak 2001 eta 2007-an egin ziren. Mankomunitate eta Udalerriek ere zenbait karakterizazio kanpaina gauzatu dituzte.

Azken 5 urteotan Gipuzkoako gizarte eta ekonomiak jasan dituzten aldaketek, biztanleriaren eguneroko kontsumo eta hondakinen sorkuntzan eragina izan du. Gainera, gaikako hondakin bilketa (papera eta kartoia, ontzi arinak, beirazko ontziak eta materia organikoa) gero eta zabaldutako egoteaz gain, Atez Ateko bilketa sistema ere martxan jarri da. Hondakin bereziak jasotzeko ere zenbait Garbigune ireki dira Gipuzkoa osoan zehar. Aldaketa guzti hauek direla eta, beharrezkoa da hiri hondakin solidoen karakterizazio kanpaina martxan jartzea, hondakinek izan duten eboluzioa ezagutzeko.

### **AZTERKETAREN HELBURUA**

Gipuzkoako zerbitzu publikoek jaso eta kudeatzen dituzten hondakinen azterketa baten atal bat da honako dokumentua. Azterketak bi atal izango ditu.

Lehenengo atalean, laburpen honetan aipaturikoa, hondakinak karakterizatzeko metodologia bat garatu da. Ondoren, karakterizazioa praktikara eraman da eta etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioa eta gainerako edukiontzi berberak erabiltzen dituzten komertzioen hondakinen gainerako frakzioa aztertu dira. Bigarren dokumentuak, aurrerago aurkeztuko denak, Gipuzkoako hondakinen fluxuak eta kantitateak aztertuko ditu.

Gipuzkoan, 2011. urtean sorturiko 334.000 tona hondakinetatik, %33 gaikako bilketari dagokio eta %67 berriz, zabortegetara garraiatzen den gainerako frakzioari. Azterketa honetan, %67 horren etxeetan eta merkataritza establezimenduetan sorturiko bestelako frakzioa den %89a karakterizatu da. Garrantzitsua da gainerako frakzioaren konposaketa ezagutzea, gaur egun zuzenean zabortegetara doan hondakin kantitatea, hein handi batean, birziklagarriak izan litezkeen hondakinez osaturik baitago.

### **KARAKTERIZAZIO METODOLOGIA**

Gaur egun Gipuzkoan aurkitzen diren hiru bilketa sistemetako bestelako frakzioaren karakterizazioa gauzatzeko metodologia garatu da: 4 edukiontzidun bilketa (ontzi arinak, beira, papera-kartoia eta gainerakoak), 5 edukiontzidun bilketa (ontzi arinak, beira, papera-kartoia, organikoa eta gainerakoak) eta Atez Ateko bilketa.

2007ko karakterizazio kanpainako kamioietako hondakinen laginak hartzeko sistema alde batera uztea erabaki da, ohiko bilketako ibilbideek ez baitute bereizketarik egiten 4 eta 5 edukiontzidun sistemen artean eta ezta biztanle estratu desberdinen artean ere.

Bi karakterizazio metodologia definitu dira: bata, Atez Ateko bilketa sisteman erabiltzeko eta bestea berriz, 4 eta 5 edukiontzidun eremuetarako. Lehenengoa, MODECOM metodologiaren moldaketan datza. Metodologia hau ADEMEK (Frantziako Ingurumen Agentzia) garaturiko metodologia da eta laginak zuzenean bilketa kamioitik ateratzen ditu. Edukiontzien bi bilketa sistemetarako berriz, SWA (Solid Waste Analysis Tool) deritzon metodologia moldatu da, laginak bestelako edukiontzietatik hartzeko gomendioa egiten baitu. Tresna hau Europako proiektu batean garaturikoa da eta bere helburua karakterizazio metodologiak bateratzea da.

Hiru irizpideren arabera estratifikatu da Gipuzkoako biztanleria: bilketa sistemaren (4 edukiontziduna, 5 edukiontziduna edo Atez Ateko bilketa), lur motaren (hiri lurra edo hiri lurra ez dena) eta komertzio edo merkataritza jardueren dentsitatearen (bizilekuak, komertzio-bizilekuak, komertzialak) arabera. Estratu bakoitzak, kontsumo, sortze eta birziklatze ohitura antzekoak dituzten populazioak biltzen ditu. Estratifikazioa gauzatzeko Gipuzkoako Patroi datu basea eta GIS tresna bat aplikatu dira.

Gipuzkoa, berau osatzen duten errola eremuetan banatu da, hauetariko bakoitza dagokion estratuan sailkatuz. Zozketa baten bitartez, laginak eskuratuko diren errola eremuak hautatu dira. Atez Ateko kasuan, errola eremuko hondakinak jasoko dira lagin moduan, eta edukiontzien kasuan berriz, hautaturiko errola eremuko bestelako edukiontzien artean beste zozketa bat eginez erabakiko dira karakterizatuak izango diren edukiontziak non aurkitzen diren.

Asteazken zehar aurkitu daitezkeen hondakinen konposizio desberdintasunak ekiditeko, aste guztian zehar hartu dira laginak. Atez Ateko eremuetan aldiz, asteazken behin jasotzen denez bestelako hondakinei dagokion bilketa, laginketa bakar batean aste guztiko hondakinak jaso dira.

## KARAKTERIZAZIO KANPAINA

Karakterizazio kanpaina 2012ko urriaren 6an hasi eta abenduaren 19an amaitu zen. 40 edukiontzi eta 8 Atez Ateko bilketa eremuetatik ateratako 76 karakterizazio gauzatu ziren, guztira 12 tona hondakin baino gehiago aztertuz. 19 lagin ezin izan ziren karakterizatu, karakterizatu ahal izateko hondakin kantitate minimora (90kg ASTM-D5231 araudia) ez baitziren iristen. Karakterizazio kanpainaren arrakasta tasa %81ekoa izan da.

Edukiontzietako zein Atez Ateko eremuetako laginak, Gipuzkoako lau zabortegetara garraiatu ziren, karakterizazio lanak gune hauetan egin baitira.

Karakterizazio matrizeak 43 atal ditu, eta era berean beste zenbait taldetan sailka daitezke hondakin moten tratamenduen arabera.



## LAN TALDEA

|                                                               |                                                                                                                                                                                                       |
|---------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Ingurumen departamentua<br/>(Gipuzkoako Foru Aldundia)</b> | <ul style="list-style-type: none"><li>Proiektuaren kudeaketa</li><li>Partaideen arteko koordinazioa</li></ul>                                                                                         |
| <b>ALTAIR Ingeniaritza</b>                                    | <ul style="list-style-type: none"><li>Karakterizazio metodologia</li><li>Karakterizazio matrizea</li><li>Karakterizazio kanpainaren planifikazio eta koordinazioa</li><li>Emaitzen analisia</li></ul> |
| <b>IDEMA</b>                                                  | <ul style="list-style-type: none"><li>Karakterizazio lanak</li></ul>                                                                                                                                  |
| <b>GISLAN</b>                                                 | <ul style="list-style-type: none"><li>Geografia Informazio Sistemaren (GIS) aplikazioa</li></ul>                                                                                                      |
| <b>BETIKOAK Garraioak</b>                                     | <ul style="list-style-type: none"><li>Karakterizazio guneetara laginen garraioa</li></ul>                                                                                                             |
| <b>Mankomunitate eta udaletxeak</b>                           | <ul style="list-style-type: none"><li>Karakterizazio kanpainan zehar lankidetzak</li></ul>                                                                                                            |






## ATEZ ATEko bilketa sistemako etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren karakterizazio emaitzak

|                 | Batez bestekoa | Beheko muga  | Goiko muga   |
|-----------------|----------------|--------------|--------------|
| MOK             | 13.83          | 11.26        | 16.39        |
| EGURRA          | 0.09           | 0.01         | 0.19         |
| PAPERA-KARTOIA  | 2.89           | 1.64         | 4.13         |
| <b>MOB</b>      | <b>16.79</b>   | <b>13.97</b> | <b>19.61</b> |
| BEIRA           | 0.85           | 0.26         | 1.44         |
| ONTZI ARINAK    | 3.41           | 2.16         | 4.67         |
| <b>ONTZIAK</b>  | <b>4.27</b>    | <b>2.54</b>  | <b>5.99</b>  |
| MISTOA          | 74.36          | 68.43        | 80.30        |
| BESTE ERREFUSA  | 4.58           | 2.22         | 6.94         |
| <b>ERREFUSA</b> | <b>78.94</b>   | <b>74.69</b> | <b>83.21</b> |






#### 4 EDUKIONTZIdun bilketa sistemako etxeetan sorturiko etxe hondakinen eta komertzioek sorturiko gainerako frakzioaren karakterizazio emaitzak

|                 | Batez bestekoa | Beheko muga  | Goiko muga   |
|-----------------|----------------|--------------|--------------|
| MOK             | 54.46          | 51.60        | 57.32        |
| EGURRA          | 0.33           | 0.01         | 0.80         |
| PAPERA-KARTOIA  | 9.83           | 7.20         | 12.45        |
| <b>MOB</b>      | <b>64.62</b>   | <b>60.48</b> | <b>68.76</b> |
| BEIRA           | 4.88           | 3.64         | 6.11         |
| ONTZI ARINAK    | 12.82          | 11.53        | 14.11        |
| <b>ONTZIAK</b>  | <b>17.70</b>   | <b>15.73</b> | <b>19.66</b> |
| MISTOA          | 12.01          | 7.04         | 16.99        |
| BESTE ERREFUSA  | 5.68           | 3.26         | 7.97         |
| <b>ERREFUSA</b> | <b>17.69</b>   | <b>13.45</b> | <b>21.91</b> |




## 5 EDUKIONTZIdun bilketa sistemako etxeetan sorturiko etxe hondakinen eta komertzioek sorturiko gainerako frakzioaren karakterizazio emaitzak

|                 | Batez bestekoa | Beheko muga  | Goiko muga   |
|-----------------|----------------|--------------|--------------|
| MOK             | 56.51          | 51.78        | 62.08        |
| EGURRA          | 0.35           | 0.03         | 0.67         |
| PAPERA-KARTOIA  | 9.24           | 7.29         | 11.20        |
| <b>MOB</b>      | <b>66.10</b>   | <b>62.39</b> | <b>69.82</b> |
| BEIRA           | 5.39           | 7.76         | 3.03         |
| ONTZI ARINAK    | 12.85          | 15.40        | 10.29        |
| <b>ONTZIAK</b>  | <b>18.24</b>   | <b>15.40</b> | <b>21.09</b> |
| MISTOA          | 10.46          | 7.94         | 12.98        |
| BESTE ERREFUSA  | 5.20           | 3.45         | 6.94         |
| <b>ERREFUSA</b> | <b>15.65</b>   | <b>11.81</b> | <b>19.50</b> |



## ONDORIOAK

### 1) 4 eta 5 edukiontziko bilketa sistemen arteko alderaketa



- 4 eta 5 edukiontzidun bilketa sistemetako MOB, Ontzi eta Errefusaren ehunekoen konfiantza tarteak gainjartzen direla ikus daiteke.
- Bi sistemen arteko desberdintasuna baieztatzeko, lagin kopurua handitu beharko da, bakoitzaren aldagarritasunak jaitsi eta tarteak nabarmendu daitezkeen.
- Edukiontzi marroian jasoriko hondakinen datuetan oinarrituz, MOK-ren (material organiko konpostagarria) gainerako edukiontziko ehunekoa %3.9 txikiagoa izatera irits daiteke 5 edukiontziko sistema 4 edukiontziko sistemarekin alderatuz gero. (karakterizazioan lorturiko konfiantza tartearen barruan).
- 4 eta 5 edukiontziko bilketa sistemetan jasoriko etxeetako eta komertzioen bestelako frakzioaren %60-70a MOB da, %15-21a Ontziak eta %12-22a berriz Errefusari dagokio.

**OHARRA:** Kantitateak aztertu gabe, karakterizazio emaitzak zuzenean alderatzeak nolabaiteko nahasketa sortu dezake. Adibidez, edukiontzi batean 100kg, non 60kg (%60) MOB eta 40kg (%40) bestelakoak direla suposatuz, 10kg MOB kenduz gero, edukiontziaren pisua 90kg-koa izatera pasatuko litzake eta konposizio berria berriz %55 (50kg) MOB eta %45 (40kg) bestelakoak izatera. Hau da, MOB-aren pisuaren %17ko txikitze batek, karakterizazioko MOB-ren konposizioa %5 soilik jaitsiaraziko du.




### 2) Gainerako frakzioaren bilketa kalitate eta material birziklagarri indizeak

| Bilketa sistema     | Etxe hondakinen gainerako frakzioa | Bilketa kalitate indizea | Materia Birziklagarri indizea |
|---------------------|------------------------------------|--------------------------|-------------------------------|
| <b>ATEZ ATE</b>     | Etxeak                             | 79%                      | 21%                           |
| <b>5 EDUKIONTZI</b> | Etxeak eta merkataritza            | 16%                      | 84%                           |
| <b>4 EDUKIONTZI</b> | Etxeak eta merkataritza            | 72%                      | 82%                           |

**OHARRA:** Bilketa kalitate indizea, gainerako edukiontzia dagokion hondakinen portzentajea da. Atez ateko bilketan Errefusa, 5 edukiontziko bilketan Errefusa eta 4 edukiontziko bilketan Errefusa eta MOK (Material Organiko Konpostagarria) dira, gainerako edukiontzi edo bilketan, egoki aurkitzen diren materialak.


### 3) Gipuzkoako etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren konposizioa

|                 | Batez bestekoa | Beheko muga  | Goiko muga   |
|-----------------|----------------|--------------|--------------|
| MOK             | 54.41          | 51.51        | 57.32        |
| EGURRA          | 0.51           | 0.02         | 1.16         |
| PAPERA-KARTOIA  | 8.45           | 6.65         | 10.25        |
| <b>MOB</b>      | <b>63.37</b>   | <b>59.17</b> | <b>67.58</b> |
| BEIRA           | 5.28           | 4.29         | 6.26         |
| ONTZI ARINAK    | 12.68          | 11.68        | 13.68        |
| <b>ONTZIAK</b>  | <b>17.95</b>   | <b>16.61</b> | <b>19.29</b> |
| MISTOA          | 13.41          | 8.46         | 18.36        |
| BESTE ERREFUSA  | 5.26           | 3.30         | 7.21         |
| <b>ERREFUSA</b> | <b>18.67</b>   | <b>14.68</b> | <b>22.66</b> |



#### 4) Atez Ateko bilketa sistemako estratuen alderaketa

Atez ateko bilketa sistemako ingurune hiritarra eta ingurune ez hiritarra estratuei dagozkien, etxeetan sorturiko gainerako frakzioko etxe hondakinen konposizioan, desberdintasun nabarmenak daude.



- Esekigailu bidez eta ekarpen puntuez osaturiko ingurune ez hiritarra den estratuan, Errefusari dagokion ehunekoa nabarmen txikitzen da. Bestalde, MOB eta Ontzien presentzia asko handitzen da ingurune hiritarreko emaitzekin alderatuz gero.
- Ingurune ez hiritarreko emaitzen konfiantza tarteak nahiko handiak dira. Efektu hau, estratu berdinean bi bilketa sistema desberdinen bitartez (zintzilikarioak eta ekarpen guneak) jasoriko eremuak bateratzeak eragin du. Ekarpen puntuetako Errefusaren batez besteko ehunekoa %39koa da.

#### 5) Kontsumitu gabeko janari hondakinak

Etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren %5a kontsumitu gabeko janari hondakinei dagokie.

#### 6) Edukiontzien bilketa sistemaren optimazioa

Bai ingurune hiritarreko eta ingurune ez hiritarreko edukiontzien bilketa maiztasunaren inguruan, zenbait hobekuntza posible antzeman dira.

- Ingurune hiritarreko 72 edukiontzien laginetatik 12k, ez zuten karakterizatu ahal izateko nahikoa hondakin. Hau da, laginketan harturiko edukiontzien %16k (edukiontzien bilketa maiztasunik ez da aldatu) 90kilo baino gutxiago zuen. Edukiontzi erdi-huts hauetariko gehienak, %83 zehazki, asteburuan zehar jasoriko edukiontziak izan dira.
- Ingurune ez hiritarreko 16 edukiontzien laginetatik 7k, ez zuten karakterizatu ahal izateko nahikoa hondakin. Nahiz eta hiri lurretako edukiontziak ez diren hauek aste guztian zehar betetzen utzi, horietatik %43 ez ziren iritsi 90kg-tara iritsi



Bestalde, laginketan jasoriko edukiontzien %56aren betetze ehunekoa, edukiontziaren edukieraren erdia baino gutxiagokoa izan da.

## 0. GIPUZKOAKO HONDAKINEN KARAKTERIZAZIOA ETA FLUXUEN AZTERKETA

Gipuzkoako Foru Aldundiak Altair Ingeniaritzari esleitu dio Gipuzkoako Lurralde Historikoko hiri hondakinen eta haien bilakaeraren azterketa, karakterizazio metodologiaren diseinua eta hondakin fluxuen, moten eta kopuruen proiektzioa, guztia Gipuzkoan beharrezkoak diren tratamendu azpiegiturak definitzeko.

Azterketa bi dokumentutan banatu da:

- **1/2 dokumentua:** Gipuzkoako Lurralde Historikoko etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren eta edukiontzi berberak erabiltzen dituzten jardura ekonomikoak sortzen dituzten hondakinen gainerako frakzioaren karakterizazio metodologia eta karakterizazio kanpaina
- **2/2 dokumentua:** Gipuzkoako Lurralde Historikoko hondakinen fluxuen, tipologiaren eta kantitateen analisi eta proiektzioa.

1/2 Dokumentu honetan aurkezten dena azterketaren lehenengo atalaren garapena da.

## 1. AURREKARIAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak, aldizka, kudeaketa publikoari dagozkion hiri hondakin solidoen karakterizazioa egiten du, berauen konposizioa ezagutzeko, eta horren arabera prebentzio, kudeaketa eta tratamendu politikak diseinatzeko.

Gipuzkoako hiri hondakin solidoei dagozkien azken karakterizazioak 2001 eta 2007an egin ziren. Mankomunitate eta udalerriek ere zenbait karakterizazio kanpaina gauzatu dituzte beraien eskualdeetan.

Azken 5 urteotan Gipuzkoako gizarteak eta ekonomiak jasan dituzten aldaketek eragina izan dute biztanleriaren eguneroko kontsumoan eta hondakinen sorkuntzan. Aldaketa hauek direla eta, beharrezkoa da, kudeaketa publikoari dagokion hiri hondakin solidoen karakterizazio kanpaina martxan jartzea, hondakinek izan duten eboluzioa ezagutzeko

- Herritarrek garapen iraunkorraren inguruan duten sentsibilitateak eragina izan du hondakinen sorkuntzan: jatorritik hondakinak bereizteko sistemetan parte hartuz, hondakin gutxiago sortzeko kontsumo portaerak aldatuz, etab.
- Erakundeen aldetik, gaikako bilketa sistemak gero eta zabalduagoak daude, birziklagarriak edo tratamendu bereziak behar dituzten materialak jatorritik bereiziz (beira, papera-kartoia, ontzi arinak, organikoa, pilak, etab.) Gainera, Atez Ateko bilketa sistema ere martxan jarri da eta, hondakin bereziak biltzeko, lurraldean zehar "Garbiguneen" presentzia gero eta handiagoa da.

2012ko apirilean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ingurumen eta Lurralde Antolaketa Departamentuak Altair Ingeniaritza SLri esleitu zion Gipuzkoako Lurralde Historikoko hiri hondakinen eta haien bilakaeraren azterketa, karakterizazio metodologiaren diseinua eta hondakin fluxuen, moten eta kopuruen proiektzioa, guztia Gipuzkoan beharrezkoak diren tratamendu azpiegiturak definitzeko.

Lehen dokumentu honek karakterizazio metodologia eta karakterizazio kanpaina jorratzen ditu eta bigarren dokumentu batean, berriz, hondakinen fluxu, tipologia eta kantitateak aztertzen dira.

Gipuzkoan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren garrantzia oso handia da. Gipuzkoako hondakinen analisi bat egitekotan, beharrezkoa da gainerako frakzioaren konposizioa ezagutzea eta, horrela, posible izango da kudeaketa, prebentzio edota tratamendu sistemen inguruko erabakiak hartzea.

Gipuzkoan, 2011. urtean sorturiko 334.000 tona hondakinetatik % 33 gaikako bilketari dagokio eta % 67, berriz, zabortegetara garraiatzen den gainerako frakzioari. Azterketa honetan, % 67 horretatik, etxeetan eta merkataritza establezimenduetan sorturiko gainerako frakzioa, hau da, % 67 horren % 89 karakterizatu da. Garrantzitsua da gainerako frakzioaren konposizioa ongi ezagutzea, gaur egun zuzenean zabortegetara doan hondakin kopurua, hein handi batean, birziklagarriak izan litezkeen hondakinez osaturik baitago.

Bilketa sistema motaren arabera, gainerako frakzioa aldakorra da bai kualitatiboki eta baita kuantitatiboki ere. 4 edukiontzidun bilketa sisteman (papera-kartoia, ontzi arinak, beira eta bestelakoak) eta 5 edukiontzidun bilketa sisteman (papera-kartoia, ontzi arinak, beira, materia organikoa eta bestelakoak), % 60-70ekoa da gainerako frakzioaren pisua. Atez Atekoan aldiz, % 20 ingurukoa da (iturria: "2008-2016 Garapen Estrategiaren dokumentua, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2012ko maiatza).

Gipuzkoaren banaketa, hondakinen bilketa sistemaren arabera, honakoa da:

- 4 edukiontzidun bilketa sistema, Gipuzkoaren % 65
- 5 edukiontzidun bilketa sistema, Gipuzkoaren % 30
- Atez Ateko bilketa sistema, Gipuzkoaren % 5

Hori dela eta, funtsezkoa da, kualitatiboki, 4 eta 5 edukiontzidun bilketa sistemetan jasoriko gainerako frakzioaren konposizioa ezagutzea, Gipuzkoako hondakinen ehuneko handi batosatzen baitu.

Azterketa hau karakterizazio metodologiaren garapenean eta karakterizazio kanpainan oinarritzen da. Etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioa eta edukiontzi berberak erabiltzen dituzten jarduera komertzialetako gainerako frakzioa dira karakterizatuko direnak. Edukiontzi propioak dituzten jarduera ekonomikoek sortzen duten gainerako frakzioko hondakinek ez dute karakterizazio kanpainan parte hartuko. Horien artean: industriak, sortzaile handiak, erakundeak, ospitaleak, ikastetxeak, etab.

Gipuzkoako Foru Aldundiak idatzitako agirietan (Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketako Plan Integrala 2002-2016, 2002ko abendukoa; Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketarako 2002-2016 Plan Integralaren Aurrerapen Dokumentua, 2008-2016, 2008ko urtarrilekoa; eta Aurrerapen Dokumentuaren Garapen Estrategia 2008-2016, 2012ko maiatzekoa) aurreikusten diren udalaz gaingindako azpiegitura plangintzek 2001ean eta 2007an egindako karakterizazio kanpainetako datuak erabili dituzte; horregatik, plangintza horiek egokitu eta moldatu egin behar dira, 2012ko karakterizazio kanpainatik ateratako datuetara.

Aurrez aipaturiko dokumentuak berrikusi beharko lirateke, eguneratuz eta proiektatuz, errealitatearekin bat datorren ingurunea ezagutu eta hondakinen tratamendurako instalazioak diseinatzeko.

Azterketa hau Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Lurralde Antolaketa Departamentuaren lankidetzarekin garatu da.

## 2. KARAKTERIZAZIO AZTERKETAREN HELBURU ETA IRISMENA

2011ko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak, Zoru Kutsatu eta Hondakinenak, definitutako terminologia erabili da.

**Etxeko hondakina:** jatorri ezberdinetatik datozen hondakinek osatzen dute:

- etxeetan sorturikoa:
  - etxeko jardueragatik
  - aparatu elektriko eta elektronikoak, arropa, pilak, akumulagailuak, altzariak, etxeko konponketa lanen eta eraikuntza lan txikien hondakinak.
- Zerbitzu, merkataritza establezimendu eta industriak
- Kale, parke, jolasleku eta hondartzen garbiketa
- Etxeko animalien hilotzak
- Abandonaturiko ibilgailuak

**Merkataritza hondakina:** merkataritza establezimendu handi eta txiki, ostalaritza, bulego, azoka eta beste zerbitzuen jardueragatik sorturiko hondakinak.

Azterlan honetan daude:

- Etxeetan eta merkataritzan/zerbitzuetan sortutako etxeko hondakinen gainerako frakzioa, batetik, eta merkataritza hondakinetik etxeetako gainerako frakzioarentzat jarritako edukiontzi berdinetera doan gainerako frakzioa, bestetik, karakterizatzeko metodologia, bilketa sistema desberdinetarako\*.
- Etxeetan eta merkataritzan/zerbitzuetan sortutako etxeko hondakinen gainerako frakzioaren karakterizazioa, batetik, eta merkataritza hondakinetik etxeetako gainerako frakzioarentzat jarritako edukiontzi berdinetera doan gainerako frakzioaren karakterizazioa, bestetik, bilketa sistema desberdinetarako.

\* Atez Ateko bilketa sistemarako, karakterizazio metodologia definitzeaz gain, karakterizatuko den etxeko hondakinen gainerako frakzioa etxeetan sorturikoa bakarrik izango da.



## **2.1. *Etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren eta merkataritza establezimenduek sortu eta edukiontzi berdinak erabiltzen dituzten merkataritza hondakinen gainerako frakzioaren karakterizazio metodologia***

2012ko karakterizazio kanpaina hau bilketa sistemaren arabera 3 azpi-karakterizazio kanpainak osatzen dute: 4 edukiontzi dituen sistemarena, 5 edukiontzi dituen sistemarena eta Atez Ateko sistemarena.

Bilketa sistemen desberdintasunak medio, garatutako metodologiak 3 bilketa sistementzat baliagarria izan behar du.

2012ko karakterizazio helburuak direla eta, 2007. urtean erabilitako metodologiak eragozpen batzuk aurkeztu ditu. Hori horrela izanik, metodologia berri bat diseinatzea erabaki da.

Gipuzkoako "Hiri Hondakin Solidoen" 2007ko karakterizazio kanpainan, gainerako frakzioari dagokion karakterizazioa egiteko, bide publikoan dauden edukiontzietako hondakinak biltzen dituzten kamioietatik laginak hartu eta lagin horiek aztertu ziren. Karakterizazio kanpainan zehar, bilketa kamioiek ohiko ibilbideak jarraitzen zituzten, eta jatorri ezberdinetako hondakinak hartzen zituzten. Hondakinak, behin kamioi barruan, nahastu egiten ziren eta, hortaz, ezinezkoa zen hondakinen jatorria bereiztea.

Inguruan egiten diren karakterizazio gehienak ohiko bilketa kamioietatik ateratako laginetan oinarritzen dira. Laginketa prozesua erraza eta eroso izan arren, baditu 2012ko karakterizazioak ekidin nahiko lituzkeen hainbat desabantaila.

- 4 eta 5 edukiontzidun bilketa sistemetako gainerako frakzioaren azterketa: 2007. urtean ez zegoen materia organikoa jatorritik bereizteko edukiontzirik. Hala ere, gaur egun udalerrri batzuetan bi sistemak nahastuta daudela kontuan hartuta, ezinezkoa izango litzateke kamioi bidezko laginketatik bi sistemen karakterizazio bereizia egitea.
- Estratifikazioa: karakterizatu beharreko laginak hondakinak biltzen dituen kamioitik jasotzen dira. Kamioiak ohiko ibilbidea egiten du, eta ibilbide hori eremu desberdinetatik igarotzen da, baita industrialdeetatik ere. Horregatik, hondakinak nahastu egiten dira kamioian sartzean. Horrela, ezin da eremu bakoitzari dagokion konposizioa ezagutu. Ibilbidean zehar, industrialde, sortzaile handi, eta abarren edukiontziak jasoz gero, karakterizazio emaitzak aldatuko lirateke eta era horretan etxe hondakinen konposizio erreala ezagutzea zaila izango litzateke. Ibilbide bitartez gauzaturiko karakterizazioak, mankomunitateka estratifikatzeko aukera eskaintzen duten arren, momentuz ez dago mankomunitate desberdinetako hondakinak taldekatzeko arrazoi justifikaturik.
- Laginen adierazgarritasuna: kamioien ibilbideetan oinarritzen diren karakterizazio kanpainetan, ezin daiteke etxeetan sorturiko hondakinen konposizioa, hondakin komertzialen edota industrien eraginetatik bereizi. Gainera, ibilbide batzuk herri desberdinetatik igaroz gero, bilketa sistema desberdinetatik datozen hondakinak ere nahastuko lirateke. 2012ko karakterizazio kanpainaren helburuetako bat da etxeetan sorturiko gainerako frakzioa ezagutzea, bilketa sistema desberdinen arabera.

Azterketa honetan garatzen den metodologiak balio du karakterizatzeko Gipuzkoan gaur egun aurkitzen diren hiru bilketa sistemen bidez jasotzen diren etxeko hondakinen gainerako frakzioa.

- 4 edukiontzidun bilketa sistema: Gainerakoa, Ontzi arinak, Beira, Papera-Kartoia
- 5 edukiontzidun bilketa sistema: Errefusa, Ontzi arinak, Beira, Papera-Kartoia eta Materia Organikoa
- Atez Ateko bilketa

Bilketa sistema bakoitzarentzat ezarri dira estratifikazioa, laginen definizioa, lagin kopurua, laginen hautaketa eta laginketa bera.

Laburbilduz, garatu den metodologia Gipuzkoakoren antzeko gizarteetan erabilitako beste karakterizazio metodologia batzuetan oinarritu da (ikus Bibliografia eta Erreferentzien atala).

Ezin izan da zuzenean erreferentzietan aipaturiko metodologiarik aplikatu, zenbait arrazoi direla eta:

- Metodologia horietan aipatzen diren bilketa sistemak ez datoz bat Gipuzkoako bilketa sistemekin.
- Metodologia horietako laginketa prozesuek (ohiko bilketatik desberdinak dira) arazo teknikoak sor ditzakete Gipuzkoan.

Karakterizazio metodologiak ondoko puntu hauek izango ditu:

- Karakterizazio matrizea: Gipuzkoako Foru Aldundiaren karakterizazio matrize estandarra oinarritzat hartuz eta tratamendu tipologiaren arabera sailkatuz, eratu da karakterizazio kanpaina honetan erabiliko den karakterizazio matrizea.
- Laginaren tratamendua: identifikaziorako, datuak hartzeko eta ziguiluak egiaztatze protokoloak.
- Laginaren tamaina: bereizte prozesuak.
- Emaizten aurkezpena: datuak idazteko fitxa bat sortu da eta datuak bidaltzeko protokolo bat ezarri da.
- Segurtasun eta osasun araudiak: lan arloko araudiak jarraituz, langileek bete behar dituzten segurtasun eta osasun arauak definitu dira.

## **2.2. *Etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren eta merkataritza establezimenduek sortu eta edukiontzi berdinak erabiltzen dituzten merkataritza hondakinen gainerako frakzioaren karakterizazio metodologia eta karakterizazio kanpainako lan taldea***

Karakterizazio metodologian eta karakterizazio kanpainan zehar parte hartu duten hainbat enpresek osatzen duten lan taldea. Ondoren laburbiltzen dira partaide bakoitzaren eginbeharrak.

### **Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Lurralde Antolaketa Departamentua**

- Proiektuaren kudeaketa: proiektua gauzatzeko definizio, plangintza eta jarraipen lanak.
- Partaideen arteko koordinazioa: mankomunitateko arduradunen eta laginen bilketaz arduratu diren enpresen arteko koordinazio lanak.

### **Altair Ingeniaritza**

- Karakterizazio metodologia: metodologiaren diseinua, estratifikazioa, karakterizazio matrizea, laginaren tratamenduak, laginen tamainak, karakterizazio egutegiak, emaitzen aurkezpena, segurtasun eta osasun araudiak, etab.
- Emaitzen analisia: bilketa sistema bakoitzaren emaitzen azterketa eta alderaketa.

### **Idema**

- Karakterizazio lanak: Karakterizazio matrizearen arabera laginen karakterizazio lanak egitea eta laginen fitxak proiektuaren koordinatzaileari bidaltzea (Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Lurralde Antolaketa Departamentuko zerbitzu teknikoak)

### **Gislan**

- Geografia Informazio Sistema aplikazioa (GIS): informazioa bildu, estratifikazioa gauzatu eta edukiontzien eragin-eremuen definizioa, GIS aplikazio baten bitartez.

### **Arrieta Garraioak**

- Laginen garraioa: edukiontziak garraiatzea, karakterizazio lanak egingo diren puntuetara.

### **Gipuzkoako mankomunitate eta udalerriak**

- Karakterizazio kanpaina aurrera eramateko beharrezko lankidetzak.

### **3. ETXEETAN SORTURIKO ETXE HONDAKINEN GAINERAKO FRAKZIOAREN ETA MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUEN GAINERAKO FRAKZIOAREN KARAKTERIZAZIO METODOLOGIAREN DISEINUA**

#### **3.1. Sarrera**

Altair Ingeniaritzak, etxeko hondakinen gainerako frakzioaren karakterizazio metodologia propioa diseinatzen saiatu beharrean, ingurune sozioekonomiko antzekoa duten lekuetako zenbait metodologia aztertu eta Gipuzkoak gaur egun dituen egoeretara egokitu ditu.

##### **3.1.1 Karakterizazio metodologiaren aukeraketa**

70eko hamarkadatik hasita, hondakinak karakterizatzeko hainbat metodologia erabili dira. Hala ere, ez da posible izan nazioartean onartua izan den karakterizazio metodologia estandarizatu bat garatzea. Metodologia estandarizatu bat ez izatearen atzean hainbat faktore daude: gizarte eta kultura desberdinak, bilketa sistemak, azterketen helburuak, etab.

**3.1 Eranskineko** taulan, Europa eta EEBBetako etxeko hondakinak karakterizatzeko hainbat metodologiaren alderaketa agertzen da. (Iturria: Department for Environment Food and Rural Affairs. United Kingdom 2008).

Karakterizazio metodologiaren hautaketa aztertu nahi diren laginen eta lortu nahi den informazioaren arabera izan da.

Bilketa sistemaren arabera, Europako Batzordeak garaturiko SWA metodologia (2004) edo Frantziako ingurumen agentziaren MODECOM metodologia (2005) jarraitu da.

Hondakin solidoen karakterizazio metodologia orok duen erronketako bat izan da, karakterizazio emaitzak aztertzerakoan, etxeetan sorturiko eta inguruko merkataritza establezimenduetan sorturiko hondakinak batera egoteak sor ditzakeen nahasteak argitzea.

#### 4 eta 5 edukiontzidun hondakinen bilketa sistema: SWA (CE)

“Solid Waste Analysis Tool” edo “SWA Tool” deritzona izan da Europa mailan (Europako Batzordearen 5. programan), 2004 urtean, karakterizazio metodologiak estandarizatzeko egin zen azkeneko saiakera.

Europako Batzordearen helburua izan zen Europako edozein lekutan funtzionatuko lukeen karakterizazio metodologia bat sortzea, karakterizazioen kalitatea hobetu eta emaitzak alderagarriak izateko. SWA Europako beste zenbait metodologia oinarri hartuta garatu zen: Frantziako Ingurumen Agentziaren ADEME edo Alemaniako ARGUS metodoa, besteak beste.

Austria, Alemania, Italia, Espainia, Erresuma Batua, Errumania eta Poloniako hainbat herritan egin zituzten SWA metodologiaren entseguak. Emaiza haien ondorio gisa, SWA metodologia deskribatzen duen eskuliburu bat argitaratu zen.

Laginak zuzenean gainerako frakzioarentzat kalean dauden edukiontzietatik hartzea gomendatzen du. Edukiontzi hauetan nahastuta egongo dira etxeetan sorturiko etxe hondakinak eta edukiontzi berberak erabiltzen dituzten inguruko jardura komertzialek sorturiko hondakinak.

Metodologia honen arabera ez da gomendagarria laginak zuzenean ohiko bilketa kamioietatik hartzea.

#### Atez Ateko hondakinen bilketa sistema: MODECOM (ADEME)

Frantziako Ingurumen eta Energia agentziak urteak daramatza hondakinen kudeaketarako karakterizazio metodologiak estandarizatzeko lanetan.

2007. urtean egin, eta 2009. urtean argitaratu zituzten “Frantziar Estatuko Etxe Hondakinen Karakterizazio Kanpainaren” emaitzak. Karakterizazio metodologiaren arabera, laginak bilketa kamioietako hondakinetan oinarritzen diren arren, aurrez laginketa egingo den eremuetan bi edukiontzi mota banatzen dira: bata jarduera komertzialen hondakinentzat eta bestea etxeetan sorturiko hondakinentzat. Kamioi batek etxeetako hondakinen edukiontziak jasoko ditu eta beste kamioi batek jarduera komertzialenak. Modu horretara, bi jatorrietatik datozen hondakinen nahasketak sorturiko arazoak ekidin daitezke.

Atez Ateko bilketa ongi egokitzen da metodologia honetara, posible baita etxeetan sorturiko hondakinak jarduera komertzialek sorturiko hondakinen eraginik gabe jasotzea. Atez Ateko esekigailuetan, etxeetako hondakinak, merkataritza establezimenduetako hondakinetatik fisikoki bereizirik daudenez, ez dago inongo arazorik soilik etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren laginak jaso eta karakterizatzeko.

### **3.1.2 GIS tresnaren erabilpena (Geografia Informazio Sistema)**

Karakterizazio kanpaina hau egiteko beharrezkoa izan da GIS teknologia. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak GISLAN enpresa kontratatu du “Informazio Geografikoko Sistemari oinarrituta, hondakinen karakterizaziorako laginen hautaketa egiteko aholkularitza” emateko. Lan honen helburua da, informazio geografikoko sistema baten bitartez datu base bat sortu eta laginen hautaketa guztiz objektiboa egiteko tresna bat sortzea.

Informazio Geografikoko Sistema tresna gisa erabiltzen da, honako helburuak betetzeko:

- Estratifikazioa garatzeko behar den informazioa eskuratzea
- Azterketa unitateak kokatu, estratuetan sailkatu eta berauen parametroak definitzea
- Laginak hartzeko erabiliko diren edukiontziak eta eremuak kokatzea, eta berauen parametroak definitzea


## 3.2. Estratifikazioa

### 3.2.1 Sarrera

Estratifikazio teknikaren bidez, populazio oso bat antzeko ezaugarriak dituzten azpipopulaziotan banatzen da. Gipuzkoan ezaugarri hauekin egiten den lehenengo azterketa denez, hainbat suposizio egin dira hondakin sortzaile moten inguruan, antzeko beste azterketetan erabili diren eta Foru Aldundiak berak proposatu dituen adierazleak erabiliz.

#### Azterketa eremua

Karakterizazio eremua Gipuzkoako Lurralde Historikoa da. Eremu hau zortzi mankomunitatetan banaturik dauden 88 udalerrik osatzen dute: Debabarrena, Debagoiena, San Marko, Sasiet, Tolosaldea, Txingudi, Urola Erdia eta Urola Kosta. Bizkaiko Mallabia eta Ermua udalerriak ere azterketan parte hartzen dute, bertako hondakinen kudeaketaz Debabarreneko mankomunitatea arduratzen baita.



3.1 Irudia: Gipuzkoako Mankomunitateen mapa

#### Azterketa unitatea

Azterketa honetan erabiliko den unitatea “zentsu sekzioa” izango da. Estatuko Estatistika Institutuaren (INE) katalogoak Gipuzkoako lurraldea (Ermua eta Mallabia barne) 558 zentsu sekziotan banatzen du.

Bestelako banaketak ere egin zitezkeen, hiriguneak kontuan hartuta adibidez, baina erabaki da horrelako banaketarik ez erabiltzea, ez dugulako nahikoa datu edo ditugun datuak ez daudelako behar bezala eguneratuta.

GISLAN enpresak justifikazio laburpen hau egin du, azterketa unitate gisa zentsu sekzioa erabiltzea arrazoitzeko:

Proiektua burutzean, ezinbestekoa izan da, lagin bezala erabiliko diren zonaldeen sailkapena egiteko, giza geografia eta aktibitate ekonomikoa xede duen lurralde azterketa burutzea. Azterketa honek lurraldearen errealitate demografiko eta ekonomikoa ezagutzeko balio izan du.

Lan hau burutzeko baliatu diren datu espazialak publikoak eta kontrastagarriak izan dira. Lurraldearen klasifikazioa egiteko, INEren kartografia erabili da, zentsu sekzioak hartuz oinarritzko lurralde unitatetzat. Zentsu sekzioak unitate ofizial estandarra dira eta lurraldea udalerriz azpitik sailkatzeko aukera ematen dute.

Zentsu sekzioak gune definitu bat mugatzen du (irizpide eraginkorren arabera, ikerketa estatistikoak burutzeko erraztasunak ematen ditu). Orokorrean, biztanle bolumenaren arabera (500-1.500 biztanle) definitzen da. Espainian INEk definitzen ditu ([www.ine.es](http://www.ine.es)).

Zentsu sekzioa ohikoa izaten da hurrengo azterketa motetan: “Manual de sistemas de información geográfica y cartografía digital” de Departamento de Asuntos Económicos y Sociales/ División de Estadística de las Naciones Unidas/Estudios de Métodos Serie F No. 79 ST/ESA/STAT/SER.F/79 PUBLICACIÓN DE LAS NACIONES UNIDAS NÚMERO DE VENTA: 00.XVII.12 ISBN 92-1-161-426 -0.

Datu espazialen azpiegiturak, hondakinen bilketari dagokionez, Ermua eta Mallabia ere kontuan izan behar ditu, Debabarreneko mankomunitatearen parte baitira. Hala, INEren zentsu sekzioen katalogoak lurraldea 558 sekziotan banatzen du. ([www.ine.es/jaxi/menu.do?type=pcaxis&path=/t20/e245/&file=inebase](http://www.ine.es/jaxi/menu.do?type=pcaxis&path=/t20/e245/&file=inebase))

Era berean, demografiari dagokionez, azterketak 2011-12-31an eguneratutako Errolda (INE) erabiltzen du oinarritzko iturri bezala, mota honetako azterketetan egin ohi den bezala; izan ere, zentsu sekzio mailan bereizitako estatistikak eskaintzen ditu, eta honek beste adierazle batzuekin (aktibitate ekonomikoa, etxebizitza...) ustiaketak egitea ahalbidetzen du. Aipatu beharra dago ez dagoela konparatuko zaion beste iturririk, izan ere udalek, Foru Aldundiak, Eustatek eta INEk osatzen eta eguneratzen dute datu base hau. (<http://www.ine.es/jaxi/menu.do?type=pcaxis&path=/t20/e245/&file=inebase>)

Aktibitate ekonomikoa geoerreferentziatzeko ere erabili da zentsu sekzioa, etxebizitza, biztanle eta edukiontziekin azterketak ahalbidetuz.

Gainontzeko lurralde banaketarik ez erabiltzea erabaki da (*HAPO, hiriguneak...*), datu sozio-ekonomikoen eguneratze eta eskuragarritasun eskasa dela eta.

OHARRA: Zentsu sekzioen gaineko edozein kontsulta egiteko: (<http://www.ine.es/jaxi/menu.do?type=pcaxis&path=/t20/e245/&file=inebase>)

3.1 Taula: GISLAN enpresak erabili dituen iturriak

### 3.2.2 1.Estratifikazioa: bilketa sistemaren arabera

Gaur egun, Gipuzkoan, hiru hondakin bilketa mota daude. Horiek eragina dute herritarrek hondakinak gainerako hondakinentzako edukiontzian botatzeko duen joeran. Gainerako frakzioaren karakterizazioa sistema batetik bestera aldatuko dela suposatuz, bilketa sistemaren arabera estratifikazioak eragingo du tipologia bakoitzeko aldagarritasunak txikiagoak izatea.

#### [4 edukiontzidun bilketa sistema](#)

4 edukiontzidun bilketa sistema: horietatik hiru bilketa selektibokoak dira (papera-kartoia, ontzi arinak eta beira) eta laugarren edukiontzia gainerako frakzioarentzat.


#### [5 edukiontzidun bilketa sistema](#)

Aurrekoaren kasu berbera da, baina eremu hauetan bilketa selektiboko bosgarren edukiontzi bat dago, materia organikoa jasotzeko.

#### [Atez Ateko bilketa sistema](#)

Arau batzuei jarraituz, hondakin guztiak jatorritik banatzean oinarritzen den bilketa sistema da. Gaur egun, Gipuzkoako lau udalerritan aurki daiteke bilketa sistema hau: Usurbil (2009tik), Hernani (2010etik), Oiartzun (2010etik) eta Antzuola (2011tik).

Gipuzkoako zentsu sekzioen banaketa, bilketa sistemen arabera, honela gelditzen da:



3.2 Irudia: Bilketa sistemaren arabera Gipuzkoako zentsu sekzioen sailkapena

### 3.2.3 2.Estratifikazioa: ingurune hiritarraren eta ez hiritarraren arabera

Estratifikazio fase honek, populazioa bi azpi-multzoetan banatzen du: ingurune hiritarra eta ez hiritarra. Antzeko karakterizazio azterketetan oso ohikoa den estratifikazioa da honakoa, eta balio du ikusteko ea badagoen desberdintasunik ingurune hiritarretako eta ez hiritarretako biztanleen artean, hondakinen sorkuntzari dagokionez eta birziklatze ohiturei dagokienez.

Dentsitate demografikoaren arabera, zentsu sekzioak ingurune hiritar edo ez hiritar gisa sailkatuko dira. Dentsitate txikiko eremuak ez dira ingurune hiritar kontsiratuko. Bestalde, dentsitate handiagoko sekzioak, ingurune hiritar izango dira.


Halere, badira zenbait udalerri Gipuzkoan, beraien landa izaera dela eta, bere sekzioak zuzenean ingurune ez hiritar gisa sailka daitezkeenak. Zuzenean ingurune hiritar bezala sailkatu daitezkeen udalerri hauen definizioa eta identifikazioa gauzatzeko, Eusko Jaurlaritzak *objetivo 2r* izenburupean aurkezturiko dokumentu bat erabili da. (Zestoa, biztanle kopuru handia duelako, zerrenda honetatik kendu da). Txosten honek, landa izaera duten Gipuzkoako udalerrien zerrenda bat aurkezten du, eta zerrenda hori egiteko irizpide sozialak, demografikoak eta jardura ekonomikoari lotutakoak erabili dira.

Zerrenda honetan daude azterketa honetarako ingurune ez hiritarreko udalerritzat hartu direnak:

|                 | <i>Mankomunitatea / Eremua</i> | <i>Udalerrria</i>                                                                                                                                                     |
|-----------------|--------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>GIPUZKOA</b> | <b>TOLOSALDEA</b>              | Abaltzisketa<br>Albiztur<br>Alkiza<br>Asteasu<br>Baliarrain<br>Berastegi<br>Bidegoian<br>Elduaian<br>Gaztelu<br>Hernialde<br>Larraul<br>Lizartza<br>Orendain<br>Orexa |
|                 | <b>UROLA KOSTA</b>             | Aia                                                                                                                                                                   |
|                 | <b>UROLA ERDIA</b>             | Beizama<br>Errezil<br>Altzaga<br>Arama<br>Ataun<br>Ezkio-Itsaso                                                                                                       |
|                 | <b>GOIERRI</b>                 | Gabiria<br>Gaintza<br>Mutiloa<br>Zaldibia<br>Zerain                                                                                                                   |

3.2 Taula: Eukal Jaurlaritzak "objetivo 2r" azterketan definituriko Gipuzkoako landa herriak

Zentsu sekzioak, ingurune hiritarrekoak direnak eta ez hiritarrekoak direnak bereizita, honela irudikatzen dira mapan:



3.3 Irudia: Ingurune hiritarra edo ez hiritarraren arabeko sailkapena

### 3.2.4 3.Estratifikazioa: jarduera komertzialaren dentsitatearen arabera

Etxebizitzetan eta inguruko merkataritza establezimenduetan sorturiko hondakinen bereizketa egitea ez da posible hainbat kasutan. Azterketa honetan aipatzen diren jarduera komertzialak, biztanleriaren kaleetako edukiontzi berberak erabiltzen dituzten merkataritza establezimenduak izango dira. Ondorioz, eremu bateko jarduera komertzialaren dentsitatearen arabera, gainerako hondakinentzako edukiontziko hondakinen karakterizazioa aldatuko delakoan, hainbat estratu bereizi dira.

“Jarduera komertzialaren dentsitatea” izeneko koefiziente bat erabili da, zentsu sekzio bakoitza sailkatzeko. Hori eremu bateko jarduera komertzialaren eta biztanleen arteko erlazioa ezagutzeko indizea izango da.

Koefiziente hau kalkulatzeko, hainbat jarduera komertzial baztertu egin dira, herritarren edukiontzi berberak ez dituztelako erabiltzen.

- Industrialdeak → industrialdeetako jarduerak
- Osasun zentroak → cnae 86-87-88 kodeak
- Organismo eta erakundeak → cnae 84 – 91 eta 99 kodeak
- Hezkuntza zentroak → cnae 85 kodeak
- Etxeetako jarduerak → cnae 97 eta 98 kodeak

Jarduera komertzial batek gainerako frakzioarako edukiontzietan duen eragina kuantifikatzeko asmoz, bi koefiziente erabili dira.

- Jarduera komertzialeko langile kopuruaren arabera koefizientea
- Jarduera komertzial motaren arabera koefizientea

Jarduera ekonomikoak kokatzeko erabili diren informazio iturriak dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduera ekonomikoen errolda eta Eusko Jaurlaritzako enpresen eta establezimendu komertzialen erroldak (DIRAE).

#### Jarduera komertzialeko langile kopuruaren arabera koefizientea

Langile kopuruari dagokion datua aurretik ezarri diren tarte batzuen arabera lortzen da. Tarte bakoitzari balio bat eman zaio. Balio hauek kalkulatzeko, tarte bakoitzaren batez besteko balioa hartu da kontuan, eta zati 1,5 langile egin da. Honela, langile tarte bakoitzarentzako koefizientearen balioa kalkulatu da.

- (1-2) langile  $\rightarrow 1.5 / 1.5 = 1$
- (3-5) langile  $\rightarrow 4 / 1.5 = 2.6$
- (6-9) langile  $\rightarrow 7.5 / 1.5 = 5$
- (10-14) langile  $\rightarrow 12 / 1.5 = 8$
- (15-19) langile  $\rightarrow 17 / 1.5 = 11.3$
- (20-49) langile  $\rightarrow 34.5 / 1.5 = 23$

Irizpide honek haztatzen du zein den edukiontzien kutsadura, langile kopuruaren arabera. Izan ere, ulertzen da langile kopurua zuzenean lotuta dagoela jarduerarekin eta, beraz, baita establezimendu batek sortzen duen hondakin kopuruarekin.

#### Jarduera komertzial motaren arabera koefizientea

Langile kopuruaz gain, establezimenduetan garatzen den jarduera motaren arabera ere haztatu nahi izan da. Azterketa hori egiteko, gainerako frakzioarentzat kalean dauden edukiontzietan izan dezaketen eraginaren arabera, CNAE kodeen zerrenda bost kategoriatan sailkatu da.

- 1. kategoria  $\rightarrow$  koefizientea = 1  $\rightarrow$  ostalaritza
- 2. kategoria  $\rightarrow$  koefizientea = 0.3  $\rightarrow$  ostatu zerbitzuak eta materia organikoarekin loturiko handizkako eta txikizkako merkataritza establezimenduak.
- 3. kategoria  $\rightarrow$  koefizientea = 0.1  $\rightarrow$  tailer mekanikoak
- 4. kategoria  $\rightarrow$  koefizientea = 0.02  $\rightarrow$  beste jarduera guztiak

Jarduera baten langile kopuruaren arabera koefizientetik eta CNAE kategoriaren arabera koefizientetik ateratzen den balioa izango da zentsu sekzio baten dentsitate komertziala eta edukiontzi baten eraginpeko eremua kalkulatzeko erabiliko dena.


Zentsu sekzio edota edukiontzi baten eragin-eremuaren jarduera komertzialen dentsitatea kalkulatzeko, eremu horretako merkataritza establezimenduen amaierako balioen batura, eremuko biztanle kopuruarekin zatitu beharko da, ondorengo formulak adierazten duen bezala.

$$jarduera\_komertzialen\_dentsitatea = \frac{\sum langile\_kopuruaren\_koefizientea \times jarduera\_tipologiaren\_koefizientea}{eremu\_populazioa} \times 100$$

3.3 Taula: Jarduera komertzialaren dentsitatea kalkulatzeko formula

Jarduera komertzialaren dentsitatea kontuan hartuko da edukiontzi bidezko hondakinen bilketa sistemarako (bai 4 edukiontziko sisteman eta baita 5 edukiontziko sisteman ere). Atez ateko hondakin bilketa ezarrita duten kasuetan, berriz, ez da jarduera komertzialaren dentsitatea estratifikazio irizpide gisa erabiliko, eremu hauetan etxeetan sorturiko hondakinak soilik jasoko baitira.

Zentsu sekzio guztien kalkuluak egin eta ingurune hiritarrak hiru estratutan banatu dira: dentsitate altua, dentsitatea ertaina eta dentsitate baxua dutenak. Ingurune ez hiritarrekoak bitan banatu dira: dentsitate ertainekoak eta dentsitate baxukoak. Atez ateko hondakinen bilketa sistema duten eremuak ez dira irizpide honen arabera estratifikatuko, laginerako jasoko diren hondakinak etxeetan sorturikoak soilik baitira.



3.4 Irudia: Jarduera komertzialaren dentsitatearen arabera Gipuzkoako zentsu sekzioen sailkapena




### 3.2.5 Azterketako amaierako estratuak

Hiru estratifikazio irizpideak (bilketa sistema, ingurune hiritarra edo ez hiritarra den, eta jarduera komertzialaren dentsitatea) kontuan hartuta, Gipuzkoako zentsu sekzioak 12 estratutan sailkatu dira. Ondorioz, azterketan parte hartzen duten Gipuzkoako Lurralde Historikoko 558 zentsu sekzioak ondorengo taulan adierazi bezala banatzen dira. **3.2 Eranskinean**, estratu bakoitzeko zentsu sekzioen zerrendak erantsi dira.

|          |              |                          |                    |                        |
|----------|--------------|--------------------------|--------------------|------------------------|
| GIPUZKOA | 4 EDUKIONTZI | INGURUNE<br>HIRITARRA    | DENTSITATE ALTUA   | 1.estratua (45 eremu)  |
|          |              |                          | DENTSITATE ERTAINA | 2.estratua (75 eremu)  |
|          |              |                          | DENTSITATE BAXUA   | 3.estratua (199 eremu) |
|          |              | INGURUNE EZ<br>HIRITARRA | DENTSITATE ERTAINA | 4.estratua (20 eremu)  |
|          |              |                          | DENTSITATE BAXUA   | 5.estratua (37 eremu)  |
|          | 5 EDUKIONTZI | INGURUNE<br>HIRITARRA    | DENTSITATE ALTUA   | 6.estratua (18 eremu)  |
|          |              |                          | DENTSITATE ERTAINA | 7.estratua (40 eremu)  |
|          |              |                          | DENTSITATE BAXUA   | 8.estratua (80 eremu)  |
|          |              | INGURUNE EZ<br>HIRITARRA | DENTSITATE ERTAINA | 9.estratua (5 eremu)   |
|          |              |                          | DENTSITATE BAXUA   | 10.estratua (11 eremu) |
|          | ATEZ ATE     | INGURUNE<br>HIRITARRA    |                    | 11.estratua (24 eremu) |
|          |              | INGURUNE EZ<br>HIRITARRA |                    | 12.estratua (4 eremu)  |

3.4 Taula: Gipuzkoako estratu bakoitzaren zentsu sekzioen banaketa



3.5 Irudia: Estratuen araberako Gipuzkoako zentsu sekzioen banaketa

### 3.3. Lagin kopurua

#### 3.3.1 Sarrera

Azterketa estatistiko baten lagin kopurua aztertu nahi diren aldagaien aldagarritasunaren arabera da. Lagin kopurua definitzeko beharrezkoa da lortuko diren emaitzak aurreikustea. Horregatik, lagin kopurua estimatu ahal izateko, antzeko beste karakterizazio azterketa bateko emaitzak ezagutu behar dira.

Hasiera batean, edukiontzi bitartez egiten den etxeko hondakinen (etxeetan sorturiko eta edukiontzi berberak erabiltzen dituzten merkataritza establezimenduen) gainerako frakzioaren Gipuzkoako lehenengo karakterizazioa izanik, ezin da zuzenean beste karakterizazio kanpaina bateko emaitzetan oinarritu lagin kopurua kalkulatzeko.

5 edukiontziko bilketa sistemako eta atez ateko sistemako gainerako frakzioen karakterizaziorik ere ez da egin inoiz Gipuzkoan.

Hala ere, beste karakterizazio kanpainetako emaitzak lagungarriak izan daitezke interesgarriak diren aldagaien aldagarritasunak gutxi gorabehera kalkulatzeko.

Bada 2004 eta 2006 urteen artean Txingudiko Mankomunitateak egindako karakterizazio azterketa bat (4 edukiontziko bilketa sisteman oinarritua). Txosten horren arabera, karakterizaturiko laginak, etxebizitzek eta inguruko merkataritza establezimenduek konpartitzen dituzten eta gainerako frakzioari dagozkien edukiontzietatik lortu dira zuzenean. Azterketa hau baliagarria izan daiteke, irizpide estatistiko jakin batzuen barruan, lagin kopuruaren kalkulua gauzatzeko.

Aldagarritasuna kalkulatzeko, karakterizazio matrizearen elementu guztiak hiru taldetan sailkatu dira, elementu guztien aldagarritasunak kontuan hartuko balira, lagin kopurua zentzurik gabe handituko litzateke eta. Taldekatze hauek proposatu dira:

- 1.Talde → MOB (Materia Organiko Biodegradagarria): Materia Organiko Konpostagarriak (MOK), egurrak eta paperak-kartoiak osatzen dute.
- 2.Talde → Ontziak : ontzi arinek eta beirak osatzen dute.
- 3.Talde → Errefusa : era askotako hondakinek, hondakin arriskutsuek, etxetresna elektrikoek (RAEE), tamaina handikoek, inerteek eta materia mistoek (pixoiak eta konpresak) osatzen dute.

Aldagarritasun handiena duen taldeak definituko du beharrezkoa izango den lagin kopurua, estatistika irizpideen arabera. Zenbait azterketa eta karakterizazio lanen analisia eginez, aurrez azalduko mugak kontuan izanik, honako batez bestekoarekiko aldagarritasun tarte hauek estima daitezke taldekatze bakoitzaren kasurako.

|                                        | MOB     | ONTZIAK  | ERREFUSA  |
|----------------------------------------|---------|----------|-----------|
| <b>Aldagarritasun koefizientea (%)</b> | % 5 - 8 | % 7 - 13 | % 50 - 70 |

3.5 Taula: Lagin kopurua kalkulatzeko aldagarritasun koefiziente estimatuak

Aldagarritasun handiena duena eta, ondorioz, laginen kopurua definituko duen elementua errefusari dagokiona izan ohi da beti. Baina karakterizazio kanpaina honen helburua denez ezagutzea, konfiantza maila handi batekin eta errore onargarri baxu batekin, MOB frakzioaren eta Ontzien ehunekoa, erabaki da irizpide orokor horri ez jarraitzea. Horregatik, karakterizazio kanpainako lagin kopurua Errefusaren aldagarritasunak definitu beharrean, hurrengo aldagarritasun handiena duen Ontziak elementuak definituko du, MOBena baino aldagarritasun handiagoa eduki ohi duela estimatzen baita.

Estimatu diren aldagarritasunak 4 edukiontzidun bilketa sistemetako gainerako frakzioaren edukiontzietako elementuei dagozkie. 5 edukiontzidun bilketa sistemako eta Atez Ateko bilketa sistemako gainerako frakzioaren aldagarritasunen inguruko daturik ez baitago, hau izango baita lehenengo karakterizazioa. Horregatik, bi kasu horietarako -5 edukiontzidun sistema eta atez ateko sistema- suposizioak egingo dira lagin kopurua kalkulatzeko orduan.

Behin karakterizazio kanpaina amaitu eta emaitzak aztertu ondoren egiaztatu ahal izango da hautaturiko lagin kopurua egokia izan den. Egokia izan ez bada, hurrengo karakterizazioetarako, irizpide estatistikoak aldatu edota lagin kopurua handitu beharko da.

### 3.3.2 Lagin kopuruaren kalkulua

Lagin kopurua kalkulatzeko ondorengo formula erabili da:

$$n = \left( \frac{Z_{\alpha/2} \times CV}{\varepsilon} \right)^2$$

3.6 Taula: Lagin kopurua kalkulatzeko formula

- $n \rightarrow$  lagin kopurua
- $Z(\alpha/2) \rightarrow$  Distribuzio normalaren konfiantza mailari dagokion koefizientea
- $\varepsilon \rightarrow$  Batez bestekoarekiko errore onargarria (%)

$$CV = \frac{\bar{x}}{\sigma}$$

3.7 Taula: Aldagarritasun koefizientea kalkulatzeko formula

- $CV \rightarrow$  Aldagarritasun koefizientea (%)
- $\bar{x} \rightarrow$  Batez besteko aritmetikoa
- $\sigma \rightarrow$  Desbiazio tipikoa

Hasiera batean, % 95 izango da datuen konfiantza maila (hau da, estratu bakoitzeko edozein laginen parametro jakin bat definituriko konfiantza tartean egoteko probabilitatea % 95ekoa izango da). Bestalde, onargarria izango den errorea, datuek izan ditzaketen dispersioari lotuta dago. Azterketa honetarako % 10a hartu da.

#### 4 edukiontzidun bilketa sistemarako lagin kopurua

4 edukiontziko (beira, papera-kartoia, ontzi arinak eta gainerakoa) bilketa sisteman suposatuz aldagarritasun handiena ontziena dela, ondoko hau ondoriozta daiteke:

$$n = \left( \frac{1.96 \times 0.10}{0.10} \right)^2 \cong 4 \text{ edukiontzi}$$

Laburbilduz, 4 edukiontziren karakterizazioak ezagutzea nahikoa izango litzateke karakterizazio matrizeko elementu garrantzitsuenen ehunekoak lortzeko, erabaki diren zehaztasun mailan. Horregatik, 1. estratutik 5. estrutura (4 edukiontzidun bilketa sistema dutenak), 4 edukiontziren azterketa gauzatuko da.

Merkataritza jarduerak gainerako frakzioan nolabaiteko eragina izan dezakeela suposatzen da. Hala ere, momentuz ezagutzen ez den faktore bat izango da.

#### 5 edukiontzidun bilketa sistemarako lagin kopurua

5. edukiontzia Gipuzkoako zenbait herritan martxan jarri denetik, ez da etxeko hondakinen gainerako frakzioaren inolako karakterizaziorik gauzatu.

Informazio iturririk gabe, 4 edukiontzidun bilketa sistemako aldagarritasun berbera hartuko da lagin kopurua kalkulatzeko. Hori horrela izanik, 5 edukiontzidun estratu bakoitzerako lau edukiontzi aztertuko dira.

Merkataritza jarduerak gainerako frakzioan nolabaiteko eragina izan dezakeela suposatzen da. Hala ere, momentuz ezagutzen ez den faktore bat izango da.

Azterketaren amaieran ezagutuko da errealitatean jasoriko datuen aldagarritasunak handiagoak edo txikiagoak diren eta ea erabakiriko lagin kopuruak eraginik baduen konfiantza mailan edo tarte-errorea binomioan.

#### Atez ateko bilketa sistemarako lagin kopurua

Atez ateko bilketa sistema Gipuzkoako hainbat herritan martxan jarri denetik, ez da etxe hondakinen gainerako frakzioaren inolako karakterizaziorik gauzatu. Hori horrela izanik, ez dira ezagutzen ez elementuen frakzioak ezta berauen aldagarritasunak ere.

Nahiz eta, hasiera batean, bilketa sistemaren ordutegi eta araudi estandarizatuak, bilketako gainerako frakzioaren konposizioa ez dela asko aldatuko pentsatzera bultzarazten duen, interesatzen diren aldagaietan aldagarritasun handiena % 10ekoa dela suposatuko da eta kasu honetan ere 4 laginketa egitea erabaki da atez ateko bilketa duten bi estratuetan.

Horrela, lau laginketa egingo dira 11. eta 12. estratuetan, atez ateko bilketa sistema dutenetan alegia. Azterketa amaitzean egiaztatuko da erabili diren hipotesiak zuzenak edo okerrak diren.

### 3.4. Urtarokotasuna

Bi urtarokotasun mota egon daitezkeela uste da:

- Urtean zeharreko urtarokotasuna: urtean zehar hondakinen sorkuntzan aldaketarik ba ote dagoen aztertuko da, karakterizazio laginak jaso eta karakterizatzeko kanpaina gauzatzeko garairik hoberena zein den erabakitzeko.
- Astean zeharreko urtarokotasuna: astean zehar hondakinen sorkuntzan eta konposizioan egon litezkeen aldaketak medio, karakterizazio garaian ahalik eta eragin gutxien izateko irtenbidea aurkituko zaio.

#### 3.4.1 Urtean zeharreko urtarokotasuna

Urtean zehar hondakinek urtarokotasunik baduten jakiteko, MODECOM protokoloaren (Ademe 1993) araberrako analisi bat egingo da, horretarako urtean zehar jasoriko hiri hondakinen datuak erabiliz.

Mankomunitateen hondakin bilketako 2011ko datuak **3.3 eranskinean** azaltzen dira.

Datuak aztertu ondoren, ondorio hauek atera dira:

- Ez dago urtean zeharreko urtarokotasun objektiborik hondakinen sorkuntzari dagokionez, ez Gipuzkoa osoan, ez eta mankomunitateetan ere.
- Urtean zeharreko urtarokotasunik antzeman ez bada ere, komeni da karakterizazio kanpainak otsaila eta abuztua saihestea.
- Laginak ez dira hartuko jai garaietan: herrietako jaietan, gabonetan, beste jaiegun orokorretan, etab.

#### 3.4.2 Astean zeharreko urtarokotasuna

Astea izango da hondakinen sorkuntzarako periodorik txikiena. Horregatik, astea hiru tartetan banatzea erabaki da, kontsumo ohitura eta hondakinen sorkuntzaren arabera:

- 1. taldekatzea → astelehena, asteartea, asteazkena eta osteguna
- 2. taldekatzea → ostirala eta larunbata
- 3. taldekatzea → igandea

Astean zeharreko konposizio aldaketak kontuan hartzeko, edukiontzi bakoitza hiru aldiz karakterizatzeko da: karakterizazio bat asteko egunen taldekatze bakoitzerako.

Astean zehar jasoriko edukiontzien laginen bitartez, edukiontziaren karakterizazio konposizioa aste guztiko hondakinekiko adierazgarria izatea lortzen da. Horrela, saihestu nahi da edozein egunetako hondakinek definitzea edukiontzi baten hondakinen karakterizazioa.

### **3.5. Laginen hautaketa**

4 eta 5 edukiontzidun bilketa sistemarako, gainerako frakzioaren edukiontzietatik irtengo dira karakterizazio kanpainarako laginak. Atez ateko kasuetan berriz, zentsu sekzioko hainbat eremutatik lortuko dira karakterizatzeko hondakinak.

Edukiontziak georreferentziatu eta berauen estratifikazio ezaugarri eta kokalekuak zehazteko, GIS sistema bat erabili behar izan da.

Karakterizazio kanpainako laginketan parte hartuko duten edukiontziak zozketa bidez hautatu dira. Lehenengo fasean, estratu bakoitzeko zentsu sekzioen zozketa egin da, eta bigarren fase batean, hautatuak izan diren zentsu sekzioen gainerako frakzioa jasotzen duten edukiontzien artean beste zozketa bat egin da, laginketan parte hartuko duten edukiontziak hautatzeko.

Atez ateko bilketa sistemaren karakterizaziorako, berriz, zozketa bakarrean hautatuko da zein zentsu sekziotan bilduko diren laginak.

#### **3.5.1 Zentsu sekzioen hautaketa**

Aurrez azalduriko hiru estratifikazio irizpideen arabera, Gipuzkoako zentsu sekzio guztiak hamabi estratutan sailkatu dira.


Zozketan parte hartzeko gutxi gorabehera 1.000 biztanleko sekzioak izan behar dutela erabaki da, sekzio guztietako edukiontzi guztiek estatistikoki hautatuak izateko probabilitate antzekoak izan ditzaten, eremu guztietan biztanle kopuru jakin batentzako edukiontzi bat dagoela suposatuz. Zentsu sekzioek 500 eta 1.500 arteko biztanle kopurua dute. Sekzio batek 1.500 biztanle baino gehiago baditu, bertan aurkituko den edukiontzi kopurua bikoitza dela suposa daiteke, eta horregatik bi parte-hartze izango ditu zozketan. Aldiz, 1.000 biztanle baino gutxiagoko sekzioak, gertutasunaren irizpidea erabiliz taldekatuko dira, zozketarako parte-hartze bat lortu ahal izateko.

Excel programa erabiliz gauzatu da zentsu sekzioen zozketa. Laginen distribuzioa hobetzeko asmoz, sekzio batek ezin izango ditu bere parte-hartze kopurua baino lagin gehiago eskuratu.

#### **3.5.2 Edukiontzien hautaketa**

Lehen faseko zozketan hautatuak izan diren zentsu sekzioetako gainerako frakzioaren edukiontzi guztiak geolokalizatu egingo dira, GPS tresna baten laguntzaz. Puntu guztiak kokatzean, sekzio horietako gainerako frakzioko edukiontzien distribuzio sare bat lortuko da.

Edukiontzi bakoitzari eragin-eremu bat dagokio. Kalkulu geomatiko batzuen bitartez, Voronoï modeloa jarraituz hain zuzen ere, edukiontzi bakoitzari biztanle kopuru bat eta jarduera komertzialen dentsitate bat esleitu zaio. Modelo geomatikoak balio du eragin-eremuak definitzeko, matematikoki, edukiontzien eta eremuko puntu guztien arteko distantzien arabera. Ondorengo irudian ikusi daiteke Voronoï metodologiaren eskema.



3.6 Irudia: Eragin-eremuen definiziorako Voronoï modeloa

Prozesu honetan, hautatuak izan diren zentsu sekzioetako zenbait edukiontzi baztertu egin dira azterketatik, hainbat arrazoi medio:

- Eremu industrialetako edukiontziak direlako
- Bi eremu desberdinen arteko mugan aurkitzen direlako
- Edukiontzia dagokion jarduera komertzialaren dentsitatea ez datorrelako bat berari dagokion zentsu sekzioaren jarduera komertzialaren dentsitatearekin (adibidez, jarduera komertzialaren dentsitatea txikia duen edukiontzi baztertu egingo da, hautatu den zentsu sekzioak jarduera komertzialean dentsitate altua badu).

Estratuaren ezaugarri berdinak ez dituzten edukiontziak azterketatik atera ondoren, zentsu sekzio bakoitzak hautatuak izan daitezkeen edukiontzien zerrenda bat izango du. Zerrenda horretako edukiontzi guztietatik bat hautatuko da bigarren faseko zozketaren bitartez.

Karakterizazio kanpainarako laginak ateratzeko hautatu diren edukiontzien inguruak begiz ikuskatu dira. Ingurunean nolabaiteko anomaliarik ikusiz gero (teorikoki aurreikusi denaren eta errealitatearen arteko koherentzi falta, esate baterako), hautatua izan den edukiontzi baliogabetu egingo da, eta berriz ere zozketa egingo da, edukiontzi posibleen artetik beste bat hautatzeko. Arazo hauek inguru ez hiritarretan gertatu dira, kontrolaezinak diren edukiontziak direla eta.

### 3.5.3 Atez ateko eremuen hautaketa

Atez ateko bilketaren kasuan, zozketa bakarrean hautatzen dira estratu bakoitzeko lau zentsu sekzioak.

Ohiko bilketa egiten duen kamioia izango da laginak hartzeko ardura duena. Etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioa soilik jasoko da lagin modura. Etxeetako hondakinak eta jarduera komertzialenak egun berdinean jasotzen badira ere, fisikoki, esekigailuen bilketa metodologia dela eta, posible da etxebizitzetako hondakinak, jarduera komertzialeko hondakinetatik bereiztea. Horregatik, ez dira lagintzat hartuko merkataritza establezimenduek sorturiko hondakinen gainerako frakzioa.

Halere, laginketa eguneko pixoiak eta konpresak laginarekin batera jasoko dira, nahiz eta eguneroko bilketa independentea eduki, gainerako frakzioaren barnean sailkatzen baitira. Pixoiak eta konpresen eragina aste guztian zehar sorturikoa izateko, karakterizatu ondoren, atal honi dagokion ehunekoa zazpi aldiz handituko da.



Hiritarrak ez diren inguruneetan ekarpen puntuak aurki daitezke. Landa ingurunekeo biztanleriaren hondakinak jasotzen dituzten edukiontziez osaturiko etxola batzuk dira puntu horiek. Bertara sartzeko beharrezkoa den giltza familia kopuru zehatz batek du. Hiritarra ez den ingurunean atez ateko sistema duten zentsu sekzioetan, posible izango da bi bilketa sistemak aurkitzea: esekigailu bidez jasotzen diren hondakinak eta ekarpen puntuetan jasotzen direnak. Kasu hauetan, hondakinak ekarpen puntuetan utzi ditzaketen biztanleriaren ehunekoa kalkulatu da eta balio horren arabera definituko da lagina:

- Ehunekoa % 80koa baino handiagoa bada, ekarpen puntuetako hondakinak soilik jasoko dira lagin moduan.
- Ehunekoa % 20koa baino txikiagoa bada, esekigailu bidez bilduriko hondakinak soilik jasoko dira lagin moduan. Ekarpen puntuetako hondakinak baztertu egingo dira kasu hauetan.
- Ehunekoa % 20 eta % 80 artekoa bada, zentsu sekzioa ez da errepresentagarria izango eta zozketa bidez beste sekzio bat hautatuko da.

### **3.6. Laginketaren plangintza**

#### **3.6.1 Karakterizazio kopurua**

##### 4 eta 5 edukiontzidun sistema

Estratu bakoitzean lau edukiontzi aztertuko dira. Edukiontzien konposizioa astean zehar jasoriko hainbat laginen bitartez definituko da.

Laginketa kanpainan zehar, orokorrean behintzat, ezin da ohiko hondakin bilketan inolako aldaketarik eman. Posible den heinean, edukiontzi bakoitzaren bilketa maiztasunaren arabera, hiru laginketa egingo zaizkio edukiontzi bakoitzari. Hala ere, ingurune hiritarrean ez dauden edukiontzien kasuetan, astean laginketa bakarra egingo da. Izan ere, biztanle kopuru txikiagoak erabiltzen dituzenez, edukiontzian aste osoko hondakinak metatu daitezke.

Karakterizazio kopurua kalkulatzuz:

- Ingurune hiritarreko estratu bakoitzeko 4 edukiontzi x 3 karakterizazio
- Ingurune ez hiritarreko estratu bakoitzeko 4 edukiontzi x karakterizazio 1

Ingurune hiritarrean 3 estratu direnez eta ingurune ez hiritarrean 2 estratu direnez, guztia 44 karakterizazio izango lirateke, 4 edukiontzidun bilketa sistemarentzat. Beste horrenbeste, 44 karakterizazio alegia, 5 edukiontzidun bilketa sistemarentzat ere.

##### Atez ateko sistema

Atez ateko bilketa eremuetako laginak astean behin jasoko dira. Horregatik, guztira 8 lagin karakterizatuko dira azterketa honetan.

Beraz, guztira 96 karakterizazio egingo dira azterketa honetan.

#### **3.6.2 Edukiontzien laginketa**

Garraio enpresa bat arduratuko da laginak jaso eta karakterizazio-guneetara garraiatzeaz. Garraiolariaren ardura izango da edukiontzia identifikatzea, pisatzea, ixtea eta hainbat datu horretarako helaraziko zaion fitxan idaztea.

#### **3.6.3 Atez ateko eremuen laginketa**

Atez ateko eremuetako hondakinak jaso ohi dituen enpresa bera arduratuko da atez ateko laginak jasotzeaz. Horretarako, bi ibilbide prestatuko ditu, laginean interesatzen zaizkigun hondakinak –hau da, etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioa eta egun berbereko pixoiak eta konpresak- bigarren ibilbiderako utziz. Lagina behar bezala jasotzeko, garraiolariak mapak eta helbideak izango ditu eskuartean. Ingurune ez hiritarrari dagokionez, gehien erabiltzen den bilketa sistema (esekigailu bidezkoa edo ekarpen puntu bidezkoa) zein den adieraziko da.

### 3.6.4 Homogeneizatze eta laurdentze prozesuak

90-280 kg artekoak izango dira karakterizatuko diren lagin guztiak. Kantitate minimoa ASTM-D5231 araudi amerikarrean oinarrituz ezarri da eta horregatik 90 kg baino gutxiagoko laginak ez dira errepresentagarriak izango. Hori dela eta, laginaren hasierako hondakinen pisua 90 kg baino gutxiagokoa bada, ez da karakterizatuko.

Hasierako hondakin kopurua 280 kg baino gehiagokoa denean, lagina karakterizatu aurretik beharrezkoak izango dira homogeneizatze eta laurdentze prozesuak. Antzeko karakterizazio azterketek kontsideratzen dute 90-140 kg arteko laginak nahikoa errepresentagarriak direla.

Homogeneizatze prozesua hondakin guztiak masa uniforme eta homogeneo bat lortu arte nahastean datza. Homogeneizatze prozesua beharrezkoa da ondoren laurdentze prozesu bat hasteko. Laurdentze prozesuan, hondakin masarekin zirkulu antzeko bat simulatzen da. Bertatik, aurrez zinta plastiko batekin definituriko bi laurden, elkarren aurkakoak, aukeratzen dira, eta horrela definitzen da karakterizatuko den lagina. Homogeneizatze-laurdentze prozesu hau behin eta berriz errepikatuko da, laginaren pisua 90-280 kg artekoa izan arte.

Ondorengo taulak laburbiltzen du azterketa honetako homogeneizatze eta laurdentze prozesuen protokoloa:

| <i>Hondakinen hasierako pisua</i> | <i>Homogeneizatze eta laurdentze prozesuak</i> |     |     | <i>Karakterizazioa</i> |
|-----------------------------------|------------------------------------------------|-----|-----|------------------------|
|                                   | 1.                                             | 2.  | 3.  |                        |
| 90-279 kg                         | →                                              | →   | →   | BAI                    |
| 280-559 kg                        | BAI                                            | →   | →   | BAI                    |
| 560-1119 kg                       | BAI                                            | BAI | →   | BAI                    |
| 1120-2239 kg                      | BAI                                            | BAI | BAI | BAI                    |

3.8 Taula: Laginen homogeneizatze eta laurdentze protokoloak

### 3.6.5 Hondakinen sailkapena

Hondakinak sailkatzeko eta karakterizatzeko prozesua da laginetako hondakinak karakterizazio matrizearen elementu edo kategorien arabera eskuz banatzea. Matrizearen elementu bakoitzari dagozkion hondakinak aurrez pisaturiko edukiontzi baten barruan sartuko dira, amaieran berriz pisatu eta horrela elementu bakoitzaren pisua ezagutzeko.

Karakterizazio matrize desberdinak aztertu dira, behin betikoa definitu aurretik. Aurreko karakterizazioetan erabilitako matrizeetan oinarrituz, alde batetik, kategoria batzuk baztertu dira gaur egun interesik ez dutelako eta, bestetik, beste zenbait gehitu dira mankomunitate eta udalerrien eskaerak jarraituz. Hondakinak amaierako karakterizazio matrizeak dituen 43 elementu edo kategorietan sailkatuko dira.

Aurreko karakterizazio kanpainetatik murriztu edo kendu diren elementuak:

- Ontziak ez dira beraien funtzionaltasunaren arabera sailkatuko: primario, sekundario eta tertziarioak.
- Kolore desberdinetako beira ez da banatuko.
- Ez dira banatuko mota ezberdinetako beirazko botilak (sagardoa, txakolina, ura, etab.).
- Larrua eta oihaletako elementu bakar batean bilduko dira
- Aparatu elektrikoak 208/2005 Errege Dekretuaren arabera karakterizatuko dira.
- Materia inerte guztiak kategoria bakar batean batu dira: zatiki ez organikoak, lurrak, zeramika eta harriak.

Mankomunitateen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskariz gehitu diren elementuak:

- **Kontsumitu gabeko janari hondakinak:** bere momentuan jangarriak ziren eta zenbait arrazoi medio kontsumitu gabe bestelako edukiontzira botatzen diren janari hondakinak.
- **Pixoihaletako eta konpresak:** aurreko karakterizazio kanpainetan hautemandako pixoihaletako eta konpresen ehuneko altua medio, beste organikodun zelulosetatik (sukaldeko ahozapiak, etab.) bereizita sailkatuko dira. Gaur egun, pixoihaletako eta konpresak errefustatzen hartzen dira.
- **Kafe kapsulak:** azken urteotako kafe kapsulen kontsumoaren hazkundea ikusirik, beharrezkotzat jo da elementu hauek independenteki sailkatzea, etxeetako hondakinetan izan dezaketen eragina nolako den benetan neurtzeko.

**KARAKTERIZAZIO MATRIZEA (2012)**

|    |                                                                |      |                        |                            |
|----|----------------------------------------------------------------|------|------------------------|----------------------------|
| 1  | Kontsumitu gabea                                               |      | Janari hondakinak      | MOK                        |
| 2  | Kontsumiturikoa                                                |      |                        |                            |
| 3  | Adaxkaduna                                                     |      | Lorezaintza hondakinak |                            |
| 4  | Adaxkarik gabea                                                |      |                        |                            |
| 5  | Hondakin organikodun zelulosa xurgatzailea                     |      | Beste organikoa        |                            |
| 6  | Beste materia organiko asimilagarriak (zerrautsa, kortxoa,...) |      |                        |                            |
| 7  | Tratatua                                                       |      |                        | Egurra<br>(ontzia ez dena) |
| 8  | Tratatu gabea                                                  |      |                        |                            |
| 9  | Ontzia ez dena                                                 |      |                        | Papera-Kartoia             |
| 10 | Ontzia dena                                                    |      |                        |                            |
| 11 | Pixoihal eta konpresak                                         |      |                        | Materia Mistoa             |
| 12 | Larrua eta oihalak                                             |      |                        |                            |
| 13 | Gardena                                                        |      |                        | Beira                      |
| 14 | Koloreduna                                                     |      |                        |                            |
| 15 | PET (primario, sekundario, tertziario)                         |      | Plastikozko ontziak    | Ontzi Arinak               |
| 16 | PEAD (primario, sekundario, tertziario)                        |      |                        |                            |
| 17 | PVC (primario, sekundario, tertziario)                         |      |                        |                            |
| 18 | PP (primario, sekundario, tertziario)                          |      |                        |                            |
| 19 | PS (primario, sekundario, tertziario)                          |      |                        |                            |
| 20 | Beste plastikoak                                               |      |                        |                            |
| 21 | Poltsa ez dena                                                 | FILM |                        |                            |
| 22 | Poltsa                                                         |      |                        |                            |
| 23 | Poliespanezko ontziak                                          |      |                        |                            |
| 24 | Ontzi ferrikoak                                                |      | Metalezko ontziak      |                            |
| 25 | Ferrikoak ez diren ontziak                                     |      |                        |                            |
| 26 | Brick                                                          |      | Ontzi konplexuak       |                            |
| 27 | Kafe kapsulak                                                  |      |                        |                            |
| 28 | Beste ontzi konplexuak                                         |      |                        |                            |
| 29 | Egurrezko ontziak                                              |      | Beste ontziak          |                            |
| 30 | Beste ontziak (zeramika,...)                                   |      |                        |                            |



|    |                                                                                           |                       |                |
|----|-------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------|----------------|
| 31 | Zaborretako poltsa beltza                                                                 | Era askotarikoak      | Beste errefusa |
| 32 | Ontzia ez den beira                                                                       |                       |                |
| 33 | Ontzia ez den plastikoa                                                                   |                       |                |
| 34 | Ontzia ez den metala (ferrikoa eta ez ferrikoa)                                           |                       |                |
| 35 | Besteak (kableak, kautxoak, gomak, RAE ez diren jostailuak, ontzia ez den poliespana,...) |                       |                |
| 36 | Medikamentuak                                                                             | Hondakin arriskutsuak |                |
| 37 | Pilak                                                                                     |                       |                |
| 38 | Olioak, pinturak, bernizak, aerosolak,...                                                 |                       |                |
| 39 | Besteak (fluoreszenteak, merkurio lanparak,...)                                           |                       |                |
| 40 | 208/2005 EDko 2. kategoriako etxetresna elektrikoak                                       | RAEEak                |                |
| 41 | 208/2005 EDko 3,4,5,6,7,8,9 eta 10. kategoriko aparatu elektronikoak                      |                       |                |
| 42 | Tamaina handikoak (koltxoak, sofak,...)                                                   | Tamaina handikoak     |                |
| 43 | Zatiki ez organikoak, lurrak, zeramikak eta harriak                                       | Inerteak              |                |

3.9 Taula: Karakterizazio kanpainako karakterizazio matrizea

#### **4. ETXEETAN SORTURIKO ETXE HONDAKINEN GAINERAKO FRAKZIOAREN ETA EDUKIONTZI BERTINEAN UZTEN DITUZTEN MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUEK SORTURIKO GAINERAKO FRAKZIOAREN KARAKTERIZAZIO KANPAINA**

##### **4.1. Laginketa metodologia**

###### **4.1.1 Laginen definizioa eta identifikazioa**

4 eta 5 edukiontzidun bilketa sistemetarako, analisi unitatea kaleko edukiontziak izango dira. Hautatuak izan diren edukiontziak ondorengo tauletan adierazten dira.

Laburbilduz, 40 edukiontzi aztertuko dira (20 edukiontzi 4 edukiontzidun bilketa sistemakoak eta beste 20, 5 edukiontzidun bilketa sistemakoak).

- 14 edukiontzi San Marko mankomunitatean daude
- 5 edukiontzi Txingudi mankomunitatean daude
- 3 edukiontzi Urola Erdia mankomunitatean daude
- 4 edukiontzi Urola Kosta mankomunitatean daude
- 6 edukiontzi Debarrena mankomunitatean daude
- Edukiontzi 1 Debagoiena mankomunitatean dago
- 3 edukiontzi Tolosaldea mankomunitatean daude
- 5 edukiontzi Sasieta mankomunitatean daude

Atez ateko sistemarekin biltzen den gainerako frakzioa aztertzeko, berriz, 8 eremutan jasoko dira laginak. Hautaturiko eremuak ondorengo mankomunitateetan aurkitzen dira:

- 7 lagin San Marko mankomunitatean daude
- Lagin 1 Debagoiena mankomunitatean dago

| Mankomunitatea Udalerrria |              | Zk.      | Edukiontzia  | Edukiontzi kodea | Edukiontziaren kokalekua                |
|---------------------------|--------------|----------|--------------|------------------|-----------------------------------------|
| SAN MARKO                 | DONOSTIA     | 1        | Donostia 1   | 20069_01_006_03  | Salamanca pasealekua                    |
|                           |              | 2        | Donostia 2   | 20069_02_004_08  | Askatasunaren ibilbidea                 |
|                           |              | 3        | Donostia 3   | 20069_05_003_18  | Secundino Esnaola kalea                 |
|                           |              | 4        | Donostia 4   | 20069_04_006_02  | Secundino Esnaola kalea                 |
|                           |              | 5        | Donostia 5   | 20069_06_007_12  | Matia kalea                             |
|                           |              | 6        | Donostia 6   | 20069_06_022_07  | Resurreccion M <sup>a</sup> Azkue kalea |
|                           |              | 7        | Donostia 7   | 20069_06_024_36  | Ondarreta pasealekua                    |
|                           |              | 8        | Donostia 8   | 20069_06_014_12  | Arriola pasealekua                      |
|                           |              | 9        | Donostia 9   | 20069_07_027_55  | Goizueta kalea                          |
|                           |              | 10       | Donostia 10  | 20069_03_030_33  | Illumbe kalea                           |
|                           |              | 11       | Donostia 11  | 20069_03_017_02  | Isabel II ibilbidea                     |
|                           |              | 12       | Donostia 12  | 20069_03_025_55  | Errondo pasealekua                      |
|                           | ERRETERIA    | 13       | Erretereria  | 20067_01_006_02  | Xenpelar kalea                          |
| TXINGUDI                  | HONDARRIBIA  | 14       | Hondarribia  | 20036_01_005_12  | Soroetagain kalea                       |
|                           | IRUN         | 15       | Irun 1       | 20045_02_010_12  | Antonio Valverde kalea                  |
|                           |              | 16       | Irun 2       | 20045_01_003_02  | Salis kalea                             |
|                           |              | 17       | Irun 3       | 20045_02_001_22  | Behobia auzoa                           |
|                           |              | 18       | Irun 4       | 20045_02_005_27  | Meaka auzoa                             |
| UROLA ERDIA               | AZPEITIA     | 19       | Azpeitia     | 20018_01_006_09  | Barrenetxe auzoa                        |
|                           | AZKOITIA     | 20       | Azkoitia 1   | 20017_03_004_12  | Urrategi auzoa                          |
|                           |              | 21       | Azkoitia 2   | 20017_01_002_22  | Olaso auzoa                             |
| UROLA KOSTA               | ZARAUTZ      | 22       | Zarautz 1    | 20079_01_002_03  | Nafarroa kalea                          |
|                           |              | 23       | Zarautz 2    | 20079_02_011_08  | Bizkaia kalea                           |
|                           |              | 24       | Zarautz 3    | 20079_02_007_40  | Urteta auzoa                            |
|                           | AIA          | 25       | Aia          | 20016_01_001_10  | Andatza auzoa                           |
| DEBABARRENA               | EIBAR        | 26       | Eibar 1      | 20030_04_004_07  | Pagaegi kalea                           |
|                           |              | 27       | Eibar 2      | 20030_01_005_05  | Jose Antonio Iturrioz kalea             |
|                           | ELGOIBAR     | 28       | Elgoibar 1   | 20032_01_005_07  | Errentxi kalea                          |
|                           |              | 29       | Elgoibar 2   | 20032_01_009_03  | Donostia kalea, Altzola auzoa           |
|                           | MALLABIA     | 30       | Mallabia     | 48058_01_001_09  | Osma auzoa                              |
|                           | DEBA         | 31       | Deba         | 20029_02_001_01  | Prozesio kalea, Itziar auzoa            |
|                           | DEBAGOIENA   | ARRASATE | 32           | Arrasate         | 20055_04_003_13                         |
| TOLOSALDEA                | ZIZURKIL     | 33       | Zizurkil     | 20028_01_001_15  | GI-3282 errepidea                       |
|                           | ADUNA        | 34       | Aduna        | 20002_01_001_06  | Goiburu auzoa                           |
|                           | ABALTZISKETA | 35       | Abaltzisketa | 20001_01_001_02  | Zaldibia errepidea                      |
| SASIETA                   | BEASAIN      | 36       | Beasain      | 20019_01_003_06  | Juan Iturralde kalea                    |
|                           | IDIAZABAL    | 37       | Idiazabal    | 20043_01_001_10  | Eduardo Irizar kalea                    |
|                           | LEGAZPI      | 38       | Legazpi      | 20051_01_007_10  | Telleriarte auzoa                       |
|                           | ZEGAMA       | 39       | Zegama       | 20025_01_001_22  | Ikaitzalde auzoa                        |
|                           | ARAMA        | 40       | Arama        | 20012_01_001_03  | Arama bidea                             |

4.1 Taula: Laginketa kanpainako edukiontzien kokalekuak

Atez Ateko bilketa sistema duten udalerrietatik, ondorengo taulan azaltzen diren eremuetako biztanleen etxe hondakinen gainerako frakzioa jasoko da karakterizazioak gauzatzeko. Hautatuak izan diren eremuei buruzko informazio gehiago **4.1 Eranskinean** aurkitzen da.

| Mankomunitatea Udalerria |          | Eremua     | Eremu kodea      | Informazio gehiago            |
|--------------------------|----------|------------|------------------|-------------------------------|
| SAN MARKO                | USURBIL  | Usurbil 1  | 20073_01_001     |                               |
|                          |          | Usurbil 2  | 20073_01_002     | Agiña, Txikierdi, San Esteban |
|                          | OIARTZUN | Oiartzun 1 | 20063_01_001     |                               |
|                          |          | Oiartzun 2 | Ekarpen puntua 1 | Ergoien                       |
|                          |          | Oiartzun 3 | Ekarpen puntua 2 | Iturriotz                     |
|                          | HERNANI  | Hernani 1  | 20040_01_016     |                               |
|                          |          | Hernani 2  | 20040_01_009     | Epele, Ereñozu, Pagoaga       |
|                          | ANTZUOLA | Antzuola   | 20011_01_001     |                               |

4.2 Taula: Atez Ateko laginketa eremuen kokalekuak

**4.2 Eranskinean** aurkitzen da atez ateko sistema duten eremuetatik hautatu direnei buruzko informazio gehiago.

Edukiontzien zerrenda aurrez definitu diren estratuetan sailkatzen da ondorengo taulan.


|              |                       |                        |              |                 |                                         |
|--------------|-----------------------|------------------------|--------------|-----------------|-----------------------------------------|
| 4 EDUKIONTZI | Ingurune hiritarra    | Merkataritza           | Donostia 1   | 20069_01_006_03 | Salamanca pasealekua                    |
|              |                       |                        | Donostia 2   | 20069_02_004_08 | Askatasunaren ibilbidea                 |
|              |                       |                        | Donostia 5   | 20069_06_007_12 | Matia kalea                             |
|              |                       |                        | Donostia 6   | 20069_06_022_07 | Resurreccion M <sup>a</sup> Azkue kalea |
|              | Ingurune hiritarra    | Merkataritza-Bizilekua | Donostia 7   | 20069_06_024_36 | Ondarreta pasealekua                    |
|              |                       |                        | Erreterria   | 20067_01_006_02 | Xenpelar kalea                          |
|              |                       |                        | Irun 1       | 20045_02_010_12 | Antonio Valverde kalea                  |
|              |                       |                        | Irun 2       | 20045_01_003_02 | Salis kalea                             |
|              | Ingurune ez hiritarra | Bizilekua              | Donostia 8   | 20069_06_014_12 | Arriola pasealekua                      |
|              |                       |                        | Donostia 9   | 20069_07_027_55 | Goizueta kalea                          |
|              |                       |                        | Hondarribia  | 20036_01_005_12 | Soroetagain kalea                       |
|              |                       |                        | Arrasate     | 20055_04_003_13 | Udalpe kalea                            |
|              | Ingurune ez hiritarra |                        | Deba         | 20029_02_001_01 | Prozesio kalea, Itziar auzoa            |
|              |                       |                        | Irun3        | 20045_02_001_22 | Behobia auzoa                           |
|              |                       |                        | Irun4        | 20045_02_005_27 | Meaka auzoa                             |
|              |                       |                        | Aduna        | 20002_01_001_06 | Goiburu auzoa                           |
|              |                       |                        | Legazpi      | 20051_01_007_10 | Telleriarte auzoa                       |
|              |                       |                        | Zizurkil     | 20028_01_001_15 | GI-3282 errepidea                       |
|              |                       |                        | Mallabia     | 48058_01_001_09 | Osma auzoa                              |
|              |                       |                        | Abaltzisketa | 20001_01_001_02 | Zaldibia errepidea                      |
| 5 EDUKIONTZI | Ingurune hiritarra    | Merkataritza           | Donostia 3   | 20069_05_003_18 | Secundino Esnaola kalea                 |
|              |                       |                        | Donostia 4   | 20069_04_006_02 | Secundino Esnaola kalea                 |
|              |                       |                        | Donostia 10  | 20069_03_030_33 | Illumbe kalea                           |
|              |                       |                        | Zarautz1     | 20079_01_002_03 | Nafarroa kalea                          |
|              | Ingurune hiritarra    | Merkataritza-Bizilekua | Beasain      | 20019_01_003_06 | Juan Iturralde kalea                    |
|              |                       |                        | Zarautz2     | 20079_02_011_08 | Bizkaia kalea                           |
|              |                       |                        | Donostia 11  | 20069_03_017_02 | Isabel II ibilbidea                     |
|              |                       |                        | Eibar1       | 20030_04_004_07 | Pagaegi kalea                           |
|              | Ingurune ez hiritarra | Bizilekua              | Donostia 12  | 20069_03_025_55 | Errondo pasealekua                      |
|              |                       |                        | Azpeitia     | 20018_01_006_09 | Barrenetxe auzoa                        |
|              |                       |                        | Idiazabal    | 20043_01_001_10 | Eduardo Irizar kalea                    |
|              |                       |                        | Eibar2       | 20030_01_005_05 | Jose Antonio Iturrioz kalea             |
|              | Ingurune ez hiritarra |                        | Zarautz3     | 20079_02_007_40 | Urteta auzoa                            |
|              |                       |                        | Elgoibar1    | 20032_01_005_07 | Errentxi kalea                          |
|              |                       |                        | Elgoibar2    | 20032_01_009_03 | Donostia kalea, Altzola auzoa           |
|              |                       |                        | Azkoitia1    | 20017_03_004_12 | Urrategi auzoa                          |
|              |                       |                        | Azkoitia2    | 20017_01_002_22 | Olaso auzoa                             |
|              |                       |                        | Aia          | 20016_01_001_10 | Andatza auzoa                           |
|              |                       |                        | Zegama       | 20025_01_001_22 | Ikaitzalde auzoa                        |
|              |                       |                        | Arama        | 20012_01_001_03 | Arama bidea                             |

4.3 Taula: Bilketa sistema, ingurune hiritarra edo ez hiritarra den, eta merkataritza jardueraren dentsitatea kontuan hartzen dituen laginketa kanpainako edukiontzien sailkapena

Era berean, atez ateko eremuen sailkapena, aurrez definituriko estratuen arabera adierazten du ondorengo taulak.

|          |                       |            |                          |
|----------|-----------------------|------------|--------------------------|
| Atez ate | Ingurune hiritarra    | Usurbil 1  | 20073_01_001             |
|          |                       | Oiartzun 1 | 20063_01_001             |
|          |                       | Hernani 1  | 20040_01_016             |
|          |                       | Antzuola   | 20011_01_001             |
|          | Ingurune ez hiritarra | Usurbil 2  | 20073_01_002             |
|          |                       | Hernani 2  | 20040_01_009             |
|          |                       | Oiartzun 2 | Ekarpen puntua Ergoien   |
|          |                       | Oiartzun 3 | Ekarpen puntua Iturriotz |

4.4 Taula: Ingurune hiritarra edo ez hiritarra den kontuan hartzen duen laginketa kanpainako atez ateko eremuen sailkapena



4.1 Irudia: Laginketa kanpainako laginen kokalekua

#### 4.1.2 Estatistika adierazgarritasuna

Estratifikazio sistemak Gipuzkoa aurrez definituriko estratuetan sailkatzen du. Honela, lagin kopuru zehatz batzuen karakterizazioak nahikoak izango dira Gipuzkoa osorako emaitzak lortzeko.

Estratu bakoitzeko laginak zozketa baten bitartez lortu dira. Era berean, datuen analisiek definituko dute elementu bakoitzaren errore eta konfiantza tarteak. Datuen azterketarako beharrezkoak diren estatistika tresnak erabiliz definitu dira azken konfiantza tarteak.

Estratu bakoitzeko emaitzak lortzeaz gain, bilketa sistema bakoitzeko eta emaitza orokorrak aztertu dira analisi estatistikoan.

#### 4.1.3 Laginketa eremuen deskribapenak

##### Edukiontzia

##### Bilketa sistemaren arabera

- **4 edukiontzi:** *kalean aurkitzen diren edukiontzien bitartez gauzatzen den bilketa sistema duten eremuak dira.*
  - *Sailkapen edukiontziak: ontzi arinak, beira eta papera-kartoia.*
  - *Sailkapenik gabeko edukiontzia: gainerako frakzioa*
- **5 edukiontzi:** *kalean aurkitzen diren edukiontzien bitartez gauzatzen den bilketa sistema duten eremuak dira.*
  - *Sailkapen edukiontziak: ontzi arinak, beira, papera-kartoia eta materia organikoa.*
  - *Sailkapenik gabeko edukiontzia: gainerako frakzioa*

##### Ingurune hiritarra edo ez hiritarraren arabera

- **Ingurune hiritarra:** udalerriaren hirigunea osatzen duten etxe eta eraikin multzoa.
- **Ingurune ez hiritarra:** ingurune hiritar gisa sailkatu ez diren gainontzeko etxe eta eraikin multzoak. Herri guneeetatik kanpo aurkitzen diren auzoguneak, landa eremuetako udalerriak nahiz herri guneeetatik at aurkitzen diren etxebizitza eta baserriak multzo honen barruan daude.

##### Merkataritza jardueraren dentsitatearen arabera

Nahiz eta Gipuzkoako eremu banaketa modu objektiboan egin den GIS tresnaren laguntzaz, badira zenbait ezaugarri komun merkataritzako, merkataritza-bizilekuko eta bizilekuko gisa definitu diren eremu guztientzat, 4 edukiontzidun bilketa sistema duten udalerriak izan nahiz 5 edukiontzidun bilketa sistema dutenak izan.

- **Merkataritza:** merkataritza jarduerak garrantzia handia duten herri edo hirietako kale eta auzoak dira. Eremu hauetan denda, bulego, merkataritza establezimendu, janari denda eta ostalaritza jarduera ugari daude (tabernak, kafetegiak, jatetxeak, janari dendak, harategiak, arrandegiak, etab.)
- **Merkataritza-Bizilekua:** Merkataritzakoak soilik diren eremuek baino merkataritza jarduera txikiagoa duten hiri eremuak dira.
- **Bizilekua:** merkataritza jarduera eskasa edo batere jarduerarik ez duten eta etxebizitzaz osatuta dauden eremuak dira. Eremu hauetako hondakinak etxeetan sorturikoak izango dira bere osotasunean.

## [Atez ateko eremuak](#)

### Ingurune hiritarra edo ez hiritarraren arabera

- **Ingurune hiritarra:** udalerriaren hirigunea osatzen duten eta atez ateko bilketa sistema ezarrita duten eremuek osatzen dute. Hondakin bilketa kalean aurkitzen diren esekigailuetan herritarrek zintzilikatzen dituzten ontzi eta poltsen bitartez gauzatzen da.
- **Ingurune ez hiritarra:** udalerriaren hirigunetik at dauden etxebizitza eta auzoek osatzen dute. Eremu hauetan, hondakin bilketa egiteko, etxeen kanpoaldean aurkitzen diren esekigailuetan herritarrek zintzilikatzen dituzten ontzi eta poltsak erabiltzeaz gain, ekarpen puntuetan aurkitzen diren edukiontziak ere erabiltzen dira.

## 4.2. Laginketa kanpaina

### 4.2.1 Plangintza eta antolaketa

Laginketa kanpainako plangintzan eta antolaketan badira kontuan hartu beharreko hiru aspektu:

- Udalerri, mankomunitate eta ohiko bilketa enpresen arteko lankidetza eta parte-hartzea.
- Laginketa taldearen prestakuntza
- Laginketa eta karakterizazio kanpainen planifikazioa.

#### Udalerri, mankomunitate eta bilketa enpresen arteko lankidetza

Laginketa kanpaina aurrera eramateko, beharrezkoa izan da udalerri, mankomunitate eta bilketa enpresen arteko lankidetza. Udalerri eta mankomunitateek edukiontzien bilketa egunei, maiztasunari eta tipologiari buruzko informazioa eskaini dute, laginketa lana bera eta ibilbideak optimizatzeko. Bestalde, ohiko bilketa enpresen lankidetza beharrezkoa izan da, bilketa maiztasunak aldatu edo bilketa bereziak gauzatu diren eremuetan (atez ateko eremuetako laginak biltzeko, adibidez).

Ingurune hiritarrekoak ez diren edukiontziak aste batean zehar betetzen uztea erabaki da, aste guztiko hondakinak karakterizatu eta 90 kilotako lagina bermatzeko. Ohiko bilketa aldatu eta edukiontzi jakin batzuk aste batean zehar betetzen uztearen ardura, dagokion mankomunitate edo udalerriarena izan da. Betetze egutegiak **4.3 Eranskinean** daude.

| <i>Mankomunitatea</i> | <i>Udalerria</i> | <i>Edukiontziaren kodea</i> | <i>Edukiontziaren kokalekua</i> |
|-----------------------|------------------|-----------------------------|---------------------------------|
| <b>Txingudi</b>       | Irun 3           | 20045_02_001_22             | Behobia auzoa                   |
|                       | Irun 4           | 20045_02_005_27             | Meaka auzoa                     |
| <b>Debabarrena</b>    | Elgoibar 1       | 20032_01_005_07             | Errentxi kalea                  |
|                       | Elgoibar 2       | 20032_01_009_03             | Donostia kalea, Altzola auzoa   |
|                       | Mallabia         | 48058_01_001_09             | Osma auzoa                      |
| <b>Urola erdia</b>    | Azkoitia 1       | 20017_03_004_12             | Urrategi auzoa                  |
|                       | Azkoitia 2       | 20017_01_002_22             | Olaso auzoa                     |
| <b>Urola Kosta</b>    | Zarautz 3        | 20079_02_007_40             | Urteta auzoa                    |
|                       | Aia              | 20016_01_001_10             | Andatza auzoa                   |
| <b>Tolosaldea</b>     | Zizurkil         | 20028_01_001_15             | GI-3282 errepidea               |
|                       | Aduna            | 20002_01_001_06             | Goiburu auzoa                   |
|                       | Abaltzisketa     | 20001_01_001_02             | Zaldibia errepidea              |
| <b>Sasieta</b>        | Zegama           | 20025_01_001_22             | Ikaitzalde auzoa                |
|                       | Legazpi          | 20051_01_007_10             | Telleriarte auzoa               |
|                       | Arama            | 20012_01_001_03             | Arama bidea                     |

4.5 Taula: Hiri lurretakoak ez diren edukiontziaren laginen kokalekuak mankomunitate bakoitzean

Atez ateko eremuko etxeek soilik sorturiko hondakinen gainerako frakzioko laginak jasotzeko, ibilbide bereziak sortu dira. Ezaugarri hauek betetzen dituzten laginak lortzeko, ohiko atez ateko bilketa eremuko enprekin kontaktuan jarri eta lagin bakoitzak izan behar dituen ezaugarriak adierazi zaizkie.

| <i>Bilketa enpresa</i> | <i>Atez ateko laginak</i> | <i>Udalerria</i> | <i>Eremuaren kodea</i>   |
|------------------------|---------------------------|------------------|--------------------------|
| CESPA                  | ATEZ ATE 3                | Oiartzun 1       | 20063_01_001             |
|                        | ATEZ ATE 5                | Oiartzun 2       | Ergoien ekarpen puntua   |
|                        | ATEZ ATE 6                | Oiartzun 3       | Iturriotz ekarpen puntua |
|                        | ATEZ ATE 8                | Antzuola         | 20011_01_001             |
| Garbitania             | ATEZ ATE 1                | Usurbil 1        | 20073_01_001             |
|                        | ATEZ ATE 7                | Usurbil 2        | 20073_01_002             |
|                        | ATEZ ATE 2                | Hernani 1        | 20040_01_016             |
|                        | ATEZ ATE 4                | Hernani 2        | 20040_01_009             |

4.6 Taula: Atez Ateko bilketa sistemako hondakinen ohiko bilketa enpresak eta beraiei dagozkien laginak

Mankomunitateko arduradunek karakterizazio kanpainaren eboluzioa eta planifikazioa ezagutzen dute. Metodologia, egutegiak eta beste hainbat informazio, dokumentu idatzi batzuen bitartez helarazi zaizkie, bai mankomunitateei eta baita laginketan parte hartuko duten ohiko bilketa enpresei ere.

#### Laginketa taldearen prestakuntza

Arrieta Garraioak enpresa izan da edukiontzien laginketaz arduratu dena. Horretarako, **4.4 Eranskin**ean adieraziriko informazioa helarazi zaio.

- Edukiontzien laginketa protokoloa
- Mankomunitate bakoitzak eskuragarri dituen edukiontzi hutsak
- Zabortegetan sartzeko dokumentazioa
- Identifikazio eta segurtasun materiala
- Fase bakoitzeko laginketa egutegiak
- Edukiontzien identifikazio fitxak

Atez ateko eremuetako etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren laginketa behar bezala gauzatzeko, **4.5 Eranskin**ean azalduko informazioa helarazi zaie, ohiko hondakin bilketaz arduratzen diren Cespa eta Garbitania enpresei.

- Atez ateko laginketa protokoloa
- Laginketa bakoitzaren ezaugarriak
- Laginketa egutegiak
- Identifikazio fitxak eta materiala

### Laginketa kanpainaren plangintza

Laginketa kanpainaren plangintza eta antolaketan hainbat logistika eta gestio lan egin dira. Horretarako, kontuan izan dira ondorengo puntu hauek:

- Edukiontzien bilketa eta garraioaren optimizazioa.
- Udalerrri edo mankomunitate bakoitzean, bilketek egutegi eta maiztasun desberdinak dituzte.
- Edukiontzi mota eta tamaina desberdinak erabiltzen dira Gipuzkoako lurraldean zehar.
- Karakterizazio lanak Gipuzkoako zabortegetan egin dira: San Marko (Errenteria), Lapatx (Azpeitia), Urteta (Zarautz) eta Sasieta (Beasain).
- Pisuaren eta hezetasunaren arteko erlazioak ahalik eta gutxien eragin dezan, lagina jasotzen den momentutik karakterizazio lanak hasi bitartean ezin izango da 48 ordu (udazkena-negua) baino gehiagoko epea igaro.

Laginketan parte hartzen duten mankomunitate eta udalerrietako informazioa erabiliz, laginen taldekatzeak planteatu dira. Taldekatzeak gauzatzekoan, laginen arteko distantziak eta ibilbideen optimizazioak izan dira erabili diren irizpide nagusiak.

| <b>Taldekatzea</b> | <b>Udalerrria</b> | <b>Edukiontzi kodea</b> | <b>Edukiontziaren kokalekua</b>         |
|--------------------|-------------------|-------------------------|-----------------------------------------|
| <b>G1</b>          | Donostia 1        | 20069_01_006_003        | Salamanca pasealekua                    |
|                    | Donostia 2        | 20069_02_004_08         | Askatasunaren ibilbidea                 |
|                    | Donostia 3        | 20069_05_003_18         | Secundino Esnaola kalea                 |
|                    | Donostia 4        | 20069_04_006_02         | Secundino Esnaola kalea                 |
| <b>G2</b>          | Donostia 5        | 20069_06_007_12         | Matia kalea                             |
|                    | Donostia 6        | 20069_06_022_07         | Resurrección M <sup>a</sup> Azcue kalea |
|                    | Donostia 7        | 20069_06_024_36         | Ondarreta pasealekua                    |
|                    | Donostia 8        | 20069_06_014_12         | Arriola pasealekua                      |
| <b>G3</b>          | Donostia 9        | 20069_07_027_55         | Goizueta kalea                          |
|                    | Donostia 10       | 20069_03_030_33         | Illumbe kalea                           |
|                    | Donostia 11       | 20069_03_017_02         | Isabel II ibilbidea                     |
|                    | Donostia 12       | 20069_03_025_55         | Errondo pasealekua                      |
| <b>G4</b>          | Errenteria        | 20067_01_006_002        | Xenpelar kalea                          |
|                    | Hondarribia       | 20036_01_005_12         | Soroetagain kalea                       |
|                    | Irun 1            | 20045_02_010_12         | Antonio Valverde kalea                  |
|                    | Irun 2            | 20045_01_003_02         | Salis kalea                             |
| <b>G5</b>          | Irun 3            | 20045_02_001_022        | Behobia auzoa                           |
|                    | Irun 4            | 20045_02_005_027        | Meaka auzoa                             |
| <b>G6</b>          | Eibar 1           | 20030_04_004_07         | Pagaegi kalea                           |
|                    | Eibar 2           | 20030_01_005_05         | Jose Antonio Iturrioz kalea             |
| <b>G7</b>          | Azpeitia          | 20018_01_006_09         | Barrenetxe auzoa                        |
|                    | Deba              | 20029_02_001_01         | Prozesio kalea, Itziar Auzoa            |
| <b>G8</b>          | Arrasate          | 20055_04_003_13         | Udalpe kalea                            |
| <b>G9</b>          | Elgoibar 1        | 20032_01_005_07         | Errentxi kalea                          |
|                    | Elgoibar 2        | 20032_01_009_03         | Donostia kalea, Altzola auzoa           |
|                    | Mallabia          | 48058_01_001_09         | Osma auzoa                              |
| <b>G10</b>         | Azkoitia 1        | 20017_03_004_12         | Urrategi auzoa                          |
|                    | Azkoitia 2        | 20017_01_002_22         | Barrio Olaso                            |
| <b>G11</b>         | Zarautz 1         | 20079_01_002_03         | Nafarroa kalea                          |
|                    | Zarautz 2         | 20079_02_011_08         | Bizkaia kalea                           |
| <b>G12</b>         | Zarautz 3         | 20079_02_007_40         | Urteta auzoa                            |
|                    | Aia               | 20016_01_001_10         | Andatza auzoa                           |



|            |              |                 |                      |
|------------|--------------|-----------------|----------------------|
| <b>G13</b> | Zizurkil     | 20028_01_001_15 | GI-3282 errepidea    |
|            | Aduna        | 20002_01_001_06 | Goiburu auzoa        |
| <b>G14</b> | Beasain      | 20019_01_003_06 | Juan Iturralde kalea |
|            | Idiazabal    | 20043_01_001_10 | Eduardo Irizar kalea |
| <b>G15</b> | Zegama       | 20025_01_001_22 | Ikaitzalde auzoa     |
|            | Legazpi      | 20051_01_007_10 | Telleriarte auzoa    |
| <b>G16</b> | Abaltzisketa | 20001_01_001_02 | Zaldibia errepidea   |
|            | Arama        | 20012_01_001_03 | Arama bidea          |

4.7 Taula: Laginketa kanpainarako laginen taldekatzeak

Gipuzkoako lau zaborteak kontuan hartuta, laginketa eta karakterizazio kanpaina lau fasetan banatu da. Fase bakoitzeko edukiontzia jaso eta gertuen dagoen zabortegira garraiatu dira karakterizazio lanak gauzatzeko.

Laburbilduz, Gipuzkoako etxe hondakinen laginketa kanpaina lau fasetan banatu da, urriaren 6an hasi eta abenduaren 18an bukatu delarik.

**Zaborteak Udalerria****Egutegia**

|           |             |                                      |                                    |
|-----------|-------------|--------------------------------------|------------------------------------|
| San Marko | Errearteria | San Marko, Txingudi                  | urriaren 06tik – azaroaren 04ra    |
| Lapatx    | Azpeitia    | Debabarrena, Debagoiena, Urola Erdia | azaroaren 20tik – abenduaren 02ra  |
| Urteta    | Zarautz     | Urola Kosta, Tolosaldea              | abenduaren 03tik – abenduaren 11ra |
| Sasieta   | Beasain     | Tolosaldea, Sasieta                  | abenduaren 13tik – abenduaren 18ra |

4.8 Taula: Laginketa kanpainaren fase bakoitzeko egutegia

### 4.3. Karakterizazio kanpaina

#### 4.3.1 Taldearen prestakuntza

IDEMA karakterizazio enpresako taldekideek kanpaina honetako karakterizazioak gauzatzeko prestakuntza jaso dute. Karakterizazio protokoloaz gain, beste zenbait argibide helarazi zaizkio karakterizazio taldeko arduradunari. Helarazi zaizkien dokumentu guztiak **4.6 Eranskinean** sartu dira.


- Karakterizazio protokoloa
- Karakterizazio matrizea
- Karakterizazio kanpainaren egutegia
- Pisuen betetze fitxa

#### 4.3.2 Karakterizazio guneen kokalekuak

Karakterizazio kanpaina lau fasetan banatu da, Gipuzkoako lau zabortegien arabera:

|                 | <i><b>Zabortegia</b></i> | <i><b>Udalerria</b></i> | <i><b>Mankomunitatea</b></i> |
|-----------------|--------------------------|-------------------------|------------------------------|
| <b>1. FASEA</b> | San Marko                | Errenteria              | San Markos                   |
| <b>2. FASEA</b> | Lapatx                   | Azpeitia                | Urola Erdia                  |
| <b>3. FASEA</b> | Urteta                   | Zarautz                 | Urola Kosta                  |
| <b>4. FASEA</b> | Sasieta                  | Beasain                 | Sasieta                      |

4.9 Taula: Karakterizazio guneen kokalekuak



4.2 Irudia: Karakterizazio guneen kokalekuak (zabortegiak)

### 4.3.3 Karakterizazio lanak

Laburpen modura, karakterizazio prozesuak ondorengo urratsak jarraitzen ditu:

| Etapak                                       | Deskripzioa                                                                                                                                                                                                                               |
|----------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Identifikazio fitxaren egiaztapena</b>    | Karakterizatu beharreko edukiontzia edo atez ateko sisteman jaso beharreko lagina karakterizazio egutegiarekin bat datorren egiaztatzea eta laginketako arduradunak beteriko identifikazio fitxa behar bezala beterik dagoen egiaztatzea. |
| <b>Hondakin kopuruaren inguruko erabakia</b> | Lagina karakterizatua izango den edo ez erabakitzea. Karakterizatua izateko, hondakinen pisuak 90 kg baino gehiagokoa izan behar du.                                                                                                      |
| <b>Huste eta nahaste prozesuak</b>           | Hondakinak plastikozko oihal batera hustu eta berauek nahastea.                                                                                                                                                                           |
| <b>Laurdentzea</b>                           | Laginak, protokoloak jarraituz, laurdentzea.                                                                                                                                                                                              |
| <b>Karakterizazioa</b>                       | Lagina guztiz definituta dagoenean, elementu guztiak karakterizazio matrizearen 43 kategorietan sailkatzea.                                                                                                                               |
| <b>Edukiontziak pisatzea</b>                 | Hondakinak sailkatzeko erabili diren edukiontziak pisatzea.                                                                                                                                                                               |
| <b>Emitzen idazpena</b>                      | Lagin bakoitzaren fitxa betetzea, elementu bakoitzaren pisuarekin, ondoren laginaren konposizioa (%) ehunekotan ezagutzeko.                                                                                                               |
| <b>Hondakinen garraioa</b>                   | Hondakinak birziklatze zentrora edo zabortegira garraiatzea.                                                                                                                                                                              |

4.10 Taula: Karakterizazio lanen deskribapenena

### 4.3.4 Plangintza eta antolaketa

Gipuzkoako etxe hondakinen gainerako frakzioaren karakterizazio kanpaina lau fasetan banatu da, urriaren 8an hasi eta abenduaren 19an bukatu delarik. **4.6 Eranskinean** adierazten da egun bakoitzean egin diren karakterizazio lanak.

| Zabortegia | Udalerrria | Mankomunitateak                      | Egutegia                           |
|------------|------------|--------------------------------------|------------------------------------|
| San Marko  | Errenteria | San Marko, Txingudi                  | urriaren 08tik – azaroaren 06ra    |
| Lapatx     | Azpeitia   | Debabarrena, Debagoiena, Urola Erdia | azaroaren 21etik – abenduaren 03ra |
| Urteta     | Zarautz    | Urola Kosta, Tolosaldea              | abenduaren 04tik – abenduaren 12ra |
| Sasieta    | Beasain    | Tolosaldea, Sasieta                  | abenduaren 14tik – abenduaren 19ra |

4.11 Taula: Karakterizazio kanpainaren egutegia

#### **4.4. Lanen garapena eta jarraipena**

##### **4.4.1 Bilketaren eta karakterizazioaren garapena**

Lagin bakoitzaren egiaztatze orria betetzearen ardura bilketa arduradunarena da (bai edukiontzien kasuan, eta baita atez ateko laginen kasuan ere). Identifikazio orria erabiliko da bilketaren iraupena, laginen pisua eta prozesu guztian zehar gerta daitezkeen arazoak idazteko.

##### **4.4.2 Bilketaren eta karakterizazioaren jarraipena**

Edukiontziko eta atez ateko laginen etiketek balio dute laginaren jarraipena egiaztatzeko, bai bilketa eta bai karakterizazio prozesuetan, emaitzak koordinatzaileari bidali arte. Etiketa jartzeko ardura laginaren bilketako arduradunari dagokio. Karakterizazio taldeko buruak kode hauek dagozkion fitxetan idatzi behar ditu, eta karakterizazio lanak amaitzean koordinatzaileari bidaliko dizkio.

Ondorengo taulak karakterizazio kanpainen zehar gertatutako gertaera eta arrakasta tasak adierazten ditu. % 81ekoa izan da karakterizazio kanpaina honen arrakasta tasa. Hasierako metodologian aurreikusten ziren laginetatik hainbat lagin ezin izan baitira karakterizatu. Gertakari guztiak, bat izan ezik, karakterizatuak izateko gutxieneko hondakin kopururik ez izaterekin loturik daude.

Ingurune hiritarreko edukiontzien kasuan, gertakari hauek ez dute azterketaren kalitatean eraginik. Edukiontzi hauek asteen 3 aldiz jasotzen direnez, horietako bat 90 kg-ra iristen ez bada ere, ez da lagina baztertuko, beste birekin definitu baitaiteke edukiontziaren karakterizazioa. Halere, gertakari hauek azterketaren parte direla kontsideratzen dira.

Aldiz, ingurune ez hiritarreko edukiontzietan, lagineko hondakinen pisua 90 kg baino gehiagokoa ez bada, edukiontzi hori azterketatik at gelditzen da, ingurune ez hiritarreko edukiontzi hauek behin bakarrik jasoko baitira.

Laburbilduz, edukiontzien karakterizazio arrakasta tasa % 96koa da ingurune hiritarreko edukiontzien kasuan, % 50ekoa ingurune ez hiritarretan eta % 100ekoa atez ateko laginetan.

Gertakariei dagokien atala **4.7 Eranskinean** sakontzen da.



|                                   |                             | KARAKTERIZAZIOAK               |                        |                | LAGINAK                                                    |                                                |                |
|-----------------------------------|-----------------------------|--------------------------------|------------------------|----------------|------------------------------------------------------------|------------------------------------------------|----------------|
| Bilketa sistema                   |                             | Huts egindako karakterizazioak | Karakterizazio kopurua | Arrakasta tasa | Karakterizatuak izan ez diren edukiontzi edo eremu kopurua | Karakterizatzekeo edukiontzi edo eremu kopurua | Arrakasta tasa |
| 4 edukiontzi                      | Ingurune hiritarra          | 4                              | 36                     | 89%            | 0                                                          | 12                                             | 100%           |
|                                   | Ingurune ez hiritarra       | 5                              | 8                      | 37%            | 5                                                          | 8                                              | 37%            |
|                                   | <b>Guztira 4 edukiontzi</b> | <b>9</b>                       | <b>44</b>              | <b>79%</b>     | <b>5</b>                                                   | <b>20</b>                                      | <b>75%</b>     |
| 5 edukiontzi                      | Ingurune hiritarra          | 8                              | 36                     | 78%            | 1                                                          | 12                                             | 92%            |
|                                   | Ingurune ez hiritarra       | 3                              | 8                      | 75%            | 3                                                          | 8                                              | 63%            |
|                                   | <b>Guztira 5 edukiontzi</b> | <b>11</b>                      | <b>44</b>              | <b>75%</b>     | <b>4</b>                                                   | <b>20</b>                                      | <b>80%</b>     |
| <b>Guztira 4 eta 5 edukiontzi</b> |                             | <b>20</b>                      | <b>88</b>              | <b>77%</b>     | <b>9</b>                                                   | <b>40</b>                                      | <b>77%</b>     |
| Atez ate                          | Ingurune hiritarra          | 0                              | 4                      | 100%           | 0                                                          | 4                                              | 100%           |
|                                   | Ingurune ez hiritarra       | 0                              | 4                      | 100%           | 0                                                          | 4                                              | 100%           |
| <b>Guztira atez ate</b>           |                             | <b>0</b>                       | <b>8</b>               | <b>100%</b>    | <b>0</b>                                                   | <b>8</b>                                       | <b>100%</b>    |
| <b>GUZTIRA</b>                    |                             | <b>20</b>                      | <b>96</b>              | <b>79%</b>     | <b>9</b>                                                   | <b>48</b>                                      | <b>81%</b>     |

4.12 Taula: Karakterizazio kanpainako gertakari eta arrakasta tasak

#### 4.5. Karakterizazio emaitzak

##### 4.5.1 Emaizen analisia egiteko, karakterizazio matrizearen sinplifikazioa

Karakterizazio emaitzen azterketa eta analisia egiteko ez dira erabiliko karakterizazio matrizeko 43 elementuak. Elementu hauek taldekatu egingo dira, alde batetik interesa duten elementuei dagozkien ondorioak lortzeko eta, beste aldetik, ehuneko txikia eta aldagarritasun handia duten elementuen azterketak ekiditeko.

Kontuan izan beharreko puntuak:

- Materia mistoa errefusaren barnean sailkatzen da
- Sinplifikatze mailarik handienera, hasierako karakterizazio matrizearen 43 elementuak hiru taldetan batzen dira: MOB (Materia Organiko Biodegradagarria), Ontziak eta Errefusa.

**4.8. Eranskinean** azaltzen dira aipaturiko sinplifikazioak.

##### 4.5.2 Karakterizazio emaitzak

Karakterizazio fitxa guztiak **4.9 Eranskinean** aurkitzen dira. Fitxa hauek karakterizazio eremuaren arabera sailkatu dira:

- San Marko zabortegiko karakterizazioak
- Lapatz zabortegiko karakterizazioak
- Urteta zabortegiko karakterizazioak
- Sasiseta zabortegiko karakterizazioak

Bestalde, **4.10 Eranskinean** karakterizazio emaitza guztiak bateratzen dituen taula bat dago:

- Ingurune hiritarreko edukiontzien karakterizazioak
- Ingurune ez hiritarrekoak diren edukiontzien karakterizazioak
- Atez ateko bilketa sistema duten ingurune hiritarreko gunetako karakterizazioak
- Atez ateko bilketa sistema duten ingurune ez hiritarrekoak diren gunetako karakterizazioak

Lehenik, estratu bakoitzeko karakterizazioak horretarako erabili den karakterizazio matrize sinplifikatuaren bitartez aurkeztu dira. Ondoren, azterketa estatistiko bat egingo da, zenbait estatistika parametro kalkulatu eta emaitzen konfiantza tarteak kalkulatzeko.

Analisirako ezarri den konfiantza mailak (N), % 95ekoa, eta estratu bakoitzean gauzaturiko lagin kopuruak definituko dituzte emaitzen erroreak. Errore hauek handiarazi edo txikiaraziko dira, karakterizazio matrizeko elementu bakoitzaren ehunekoaren konfiantza tarteak kontuan hartuta.

Azterketa estatistikoa karakterizazio matrizearen taldekatze nagusitik lorturiko hiru elementuetan egingo da:

- MOB (Materia Organiko Biodegradagarria), Ontziak eta Errefusa

#### 4.5.3 Atez ateko bilketa sistemako etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren karakterizazio emaitzak

##### 4.5.3.1 Atez ateko bilketa sistema: ingurune hiritarra


Ondorengo taulak atez ateko bilketa sistema duten ingurune hiritarreko eremuetatik zoriz hautatu diren lau eremuetako etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren konposizioak erakusten ditu.

|                 | ATEZ ATE 1<br>(Usurbil) | ATEZ ATE 2<br>(Oiartzun) | ATEZ ATE 3<br>(Hernani) | ATEZ ATE 8<br>(Antzuola) |
|-----------------|-------------------------|--------------------------|-------------------------|--------------------------|
| MOK             | 14.16                   | 10.44                    | 12.01                   | 9.97                     |
| EGURRA          | 0.00                    | 0.00                     | 0.22                    | 0.00                     |
| PAPERA-KARTOIA  | 2.18                    | 3.39                     | 3.13                    | 0.85                     |
| <b>MOB</b>      | <b>16.34</b>            | <b>13.82</b>             | <b>15.36</b>            | <b>10.81</b>             |
| BEIRA           | 0.50                    | 0.68                     | 1.69                    | 0.06                     |
| ONTZI ARIKNAK   | 3.55                    | 3.09                     | 4.00                    | 1.05                     |
| <b>ONTZIAK</b>  | <b>4.05</b>             | <b>3.77</b>              | <b>5.69</b>             | <b>1.11</b>              |
| MISTOA          | 76.74                   | 78.88                    | 70.38                   | 85.78                    |
| BESTE ERREFUSA  | 2.88                    | 3.52                     | 8.57                    | 2.30                     |
| <b>ERREFUSA</b> | <b>79.62</b>            | <b>82.40</b>             | <b>78.95</b>            | <b>88.08</b>             |


4.13 Taula: Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren karakterizazio emaitzak: Hiri lurren estratua

|                 | Batez bestekoa | Konfiantza tartea<br>(N=95%) | Beheko muga  | Goiko muga   |
|-----------------|----------------|------------------------------|--------------|--------------|
| <b>MOB</b>      | <b>14.08</b>   | <b>2.05</b>                  | <b>12.03</b> | <b>16.13</b> |
| <b>ONTZIAK</b>  | <b>3.66</b>    | <b>1.61</b>                  | <b>2.05</b>  | <b>5.26</b>  |
| <b>ERREFUSA</b> | <b>82.26</b>   | <b>3.53</b>                  | <b>78.74</b> | <b>85.79</b> |

4.14 Taula: Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren analisi estatistiko orokorra: Hiri lurren estratua



4.1 Diagrama: Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren batez besteko konposizio orokorra: Hiri lurren estratua




4.2 Diagrama: Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren tarte orokorrak: Hiri lurren estratua

Gainerako frakzioaren bilketaren kalitate indizea % 82koa da.


Atez ateko bilketa sistema duten ingurune hiritarreko etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren xehetasun handiagoko konposizioa azaltzen da ondorengo taulan.

|                       | Batez bestekoa | Behako muga  | Goiko muga   |
|-----------------------|----------------|--------------|--------------|
| <b>MOK</b>            | 11.65          | 10.04        | 13.25        |
| <b>EGURRA</b>         | 0.06           | 0.00         | 0.15         |
| <b>PAPERA-KARTOIA</b> | 2.39           | 1.41         | 3.36         |
| <b>MOB</b>            | <b>14.08</b>   | <b>12.03</b> | <b>16.13</b> |
| <b>BEIRA</b>          | 0.73           | 0.15         | 1.32         |
| <b>ONTZI ARINAK</b>   | 2.92           | 1.82         | 4.03         |
| <b>ONTZIAK</b>        | <b>3.66</b>    | <b>2.05</b>  | <b>5.26</b>  |
| <b>MISTOA</b>         | 77.95          | 72.56        | 83.33        |
| <b>BESTE ERREFUSA</b> | 4.32           | 1.87         | 6.76         |
| <b>ERREFUSA</b>       | <b>82.26</b>   | <b>78.74</b> | <b>85.79</b> |

4.15 Taula: Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren analisi estatistiko xehatua: Hiri lurren estratua



4.3 Diagrama: Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren batez besteko konposizio xehatua: Hiri lurren estratua



4.4 Diagrama: Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren tarte xehatuak: Hiri lurren estratua



- Materia mistoa da, % 78ko ehunekoarekin, etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren konposizioan pisu handiena duen elementua.
- Materia Organiko Konpostagarria (MOK) da, % 12ko ehunekoarekin, bigarren ehuneko handiena duen elementua.
- % 5a baino txikiagokoa da beste elementu guztien presentzia.

#### Materia mistoa

Materia mistoa karakterizazio matrizeko bi elementuk osatzen dute: alde batetik, pixoihal eta konpresak daude eta, bestetik, larrua eta oihalei dagokiena. Konposizioaren % 74 pixoihal eta konpresei dagokie eta % 4, berriz, larru eta oihalei.

Kontuan izan beharra dago, pixoihal eta konpresek likido eta materia organiko kantitate garrantzitsuak eduki ohi dituztela.

#### Kontsumitu gabeko janari hondakinak

Etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren % 2 da kontsumitu gabeko janari hondakinei dagokien ehunekoa. Hala ere, kontsumitu gabeko janari hondakin gehienak materia organikoaren bilketan aurkitzen dira.

#### 4.5.3.2 Atez ateko bilketa sistema: ingurune ez hiritarra


Ondorengo taulak atez ateko bilketa sistema duten ingurune ez hiritarretatik zoriz hautatu diren lau eremuetako etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren konposizioak erakusten ditu.

|                       | ATEZ ATE 4<br>(Hernani) | ATEZ ATE 7<br>(Usurbil) | ATEZ ATE 5<br>(Oiartzun) | ATEZ ATE 6<br>(Oiartzun) |
|-----------------------|-------------------------|-------------------------|--------------------------|--------------------------|
| <b>MOK</b>            | 23.04                   | 26.53                   | 31.60                    | 52.61                    |
| <b>EGURRA</b>         | 0,61                    | 0.13                    | 0.14                     | 0.57                     |
| <b>PAPERA-KARTOIA</b> | 4.94                    | 10.02                   | 11.97                    | 2.53                     |
| <b>MOB</b>            | <b>28.60</b>            | <b>36.67</b>            | <b>43.71</b>             | <b>55.72</b>             |
| <b>BEIRA</b>          | 2.24                    | 1.42                    | 2.82                     | 1.23                     |
| <b>ONTZI ARINAK</b>   | 3.87                    | 9.23                    | 10.97                    | 7.19                     |
| <b>ONTZIAK</b>        | <b>6.11</b>             | <b>10.65</b>            | <b>13.79</b>             | <b>8.42</b>              |
| <b>MISTOA</b>         | 56.98                   | 48.34                   | 34.19                    | 29.03                    |
| <b>BESTE ERREFUSA</b> | 3.98                    | 3.98                    | 8.32                     | 6.83                     |
| <b>ERREFUSA</b>       | <b>65.30</b>            | <b>52.67</b>            | <b>42.51</b>             | <b>35.86</b>             |


4.16 Taula: Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren karakterizazio emaitzak: Hiri lurra ez den estratua

|                 | Batez bestekoa | Konfiantza tarte<br>(N=95%) | Beheko muga  | Goiko muga   |
|-----------------|----------------|-----------------------------|--------------|--------------|
| <b>MOB</b>      | <b>41.18</b>   | <b>9.76</b>                 | <b>31.42</b> | <b>50.93</b> |
| <b>ONTZIAK</b>  | <b>9.74</b>    | <b>2.78</b>                 | <b>6.96</b>  | <b>12.52</b> |
| <b>ERREFUSA</b> | <b>49.09</b>   | <b>10.89</b>                | <b>38.20</b> | <b>59.97</b> |

4.17 Taula: Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren analisi estatistiko orokorra: Hiri lurra ez den estratua



4.5 Diagrama: Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren batez besteko konposizio orokorra: Hiri lurra ez den estratua




4.6 Diagrama: Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren tarte orokorrak: Hiri lurra ez den estratua

Gainerako frakzioaren bilketaren kalitate indizea % 49koa da.


Atez ateko bilketa sistema duten ingurune ez hiritarreko etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren xehetasun handiagoko konposizioa azaltzen da ondorengo taulan.

|                       | Batez bestekoa | Beheko muga  | Goiko muga   |
|-----------------------|----------------|--------------|--------------|
| <b>MOK</b>            | 33.45          | 22.20        | 33.45        |
| <b>EGURRA</b>         | 0.36           | 0.14         | 0.36         |
| <b>PAPERA-KARTOIA</b> | 7.37           | 3.65         | 7.37         |
| <b>MOB</b>            | <b>41.18</b>   | <b>31.42</b> | <b>50.93</b> |
| <b>BEIRA</b>          | 1.93           | 1.30         | 1.93         |
| <b>ONTZI ARINAK</b>   | 7.82           | 5.23         | 7.82         |
| <b>ONTZIAK</b>        | <b>9.74</b>    | <b>6.96</b>  | <b>12.52</b> |
| <b>MISTOA</b>         | 42.14          | 31.25        | 42.14        |
| <b>BESTE ERREFUSA</b> | 6.95           | 5.35         | 6.95         |
| <b>ERREFUSA</b>       | <b>49.09</b>   | <b>38.20</b> | <b>58.97</b> |

4.18 Taula: Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren analisi estatistiko xehatua: Hiri lurra ez den estratua



4.7 Diagrama: Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren batez besteko konposizio xehatua: Hiri lurra ez den estratua



4.8 Diagrama: Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren tarte xehatuak: Hiri lurra ez den estratua

- Materia mistoa da, % 43ko ehunekoarekin, etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren konposizioan pisu handiena duen elementua.
- Materia Organiko Konpostagarria (MOK) da, % 33ko ehunekoarekin, bigarren ehuneko handiena duen elementua.
- “Papera-Kartoia”, “Ontzi Arinak” eta “Beste Errefusa” % 7-8 artean aurkitzen dira.
- “Egurra” eta “Beira” elementuek, aldiz, ez dute % 2 gainditzen.

#### Materia mistoa

Materia mistoa karakterizazio matrizeko bi elementuk osatzen dute: alde batetik, pixoihal eta konpresak daude eta, bestetik, larrua eta oihalak. Konposizioaren % 37 pixoihal eta konpresei dagokie eta % 6, berriz, larru eta oihalei.

Kontuan izan behar da pixoihal eta konpresek likido eta materia organiko kantitate garrantzitsuak eduki ohi dituztela.

#### Kontsumitu gabeko janari hondakinak

Etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren % 8 da kontsumitu gabeko janari hondakinei dagokien ehunekoa. Hala ere, kontsumitu gabeko janari hondakin gehienak materia organikoaren bilketan aurkitzen dira.

Ingurune ez hiritarrekoak diren etxebizitzetara dagozkien emaitzen konfiantza tarteak nahiko handiak dira. Hori horrela da estratu berean bi bilketa sistema (esekigailuak eta ekarpen puntuak) dituzten biztanleek bat egiten dutelako gertatu da. Ingurune ez hiritarrak bateratzen dituen estratua bilketa sistemaren arabera banatuko balitz lortuko liratekeen emaitzak azaltzen dira ondorengo taulan.

#### Azpi-estratifikazio posiblea

Aurrez antzeman den azpi-estratifikazio posiblea aztertu asmoz, ingurune ez hiritarraren estratua bi azpi-estratutan banatuko da, bilketa sistemaren arabera (esekigailuak edo ekarpen puntuak).

|                       | ESEKIGAILU BIDEZKO BILKETA |                         | EKARPEN PUNTUETAKO BILKETA |                          |
|-----------------------|----------------------------|-------------------------|----------------------------|--------------------------|
|                       | ATEZ ATE 4<br>(Hernani)    | ATEZ ATE 7<br>(Usurbil) | ATEZ ATE 5<br>(Oiartzun)   | ATEZ ATE 6<br>(Oiartzun) |
| <b>MOK</b>            | 23.04                      | 26.53                   | 31.60                      | 52.61                    |
| <b>EGURRA</b>         | 0,61                       | 0.13                    | 0.14                       | 0.57                     |
| <b>PAPERA-KARTOIA</b> | 4.94                       | 10.02                   | 11.97                      | 2.53                     |
| <b>MOB</b>            | <b>28.60</b>               | <b>36.67</b>            | <b>43.71</b>               | <b>55.72</b>             |
| <b>BEIRA</b>          | 2.24                       | 1.42                    | 2.82                       | 1.23                     |
| <b>ONTZI ARINAK</b>   | 3.87                       | 9.23                    | 10.97                      | 7.19                     |
| <b>ONTZIAK</b>        | <b>6.11</b>                | <b>10.65</b>            | <b>13.79</b>               | <b>8.42</b>              |
| <b>MISTOA</b>         | 56.98                      | 48.34                   | 34.19                      | 29.03                    |
| <b>BESTE ERREFUSA</b> | 3.98                       | 3.98                    | 8.32                       | 6.83                     |
| <b>ERREFUSA</b>       | <b>65.30</b>               | <b>52.67</b>            | <b>42.51</b>               | <b>35.86</b>             |

4.19 Taula: Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren karakterizazio emaitzak: Esekigailu bidez bilduriko hiri lurra ez dena eta ekarpen puntuen bidez bilduriko hiri lurra ez dena

Ingurune ez hiritarren barruan, esekigailuak erabiltzen dituzten etxebizitzetako bilketa


|                 | Batez bestekoa | Konfiantza tarte<br>(N=95%) | Beheko muga  | Goiko muga   |
|-----------------|----------------|-----------------------------|--------------|--------------|
| <b>MOB</b>      | <b>32.64</b>   | <b>5.59</b>                 | <b>27.04</b> | <b>38.23</b> |
| <b>ONTZIAK</b>  | <b>8.38</b>    | <b>3.15</b>                 | <b>5.23</b>  | <b>11.53</b> |
| <b>ERREFUSA</b> | <b>58.99</b>   | <b>8.75</b>                 | <b>50.23</b> | <b>67.74</b> |

4.20 Taula: Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren analisi estatistiko orokorra: Esekugailu bidez bilduriko hiri lurra ez den estratua


Ingurune ez hiritarren barruan, ekarpen puntuak erabiltzen dituzten etxebizitzetako bilketa

|                 | Batez bestekoa | Konfiantza tarte<br>(N=95%) | Beheko muga  | Goiko muga   |
|-----------------|----------------|-----------------------------|--------------|--------------|
| <b>MOB</b>      | <b>49.72</b>   | <b>8.32</b>                 | <b>41.39</b> | <b>58.04</b> |
| <b>ONTZIAK</b>  | <b>11.11</b>   | <b>3.72</b>                 | <b>7.38</b>  | <b>14.83</b> |
| <b>ERREFUSA</b> | <b>39.19</b>   | <b>4.61</b>                 | <b>34.58</b> | <b>43.79</b> |

4.21 Taula: Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren analisi estatistiko orokorra: Ekarpenez bilduriko hiri lurra ez den estratua



4.9 Diagrama: Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren tarte orokorrak: Esekigailu bidez bilduriko hiri lurra ez den estratua



4.10 Diagrama: Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren tarte orokorrak: Ekarpenez bilduriko hiri lurra ez den estratua


Bi azpi-estratuen gainerako frakzioaren konposizio emaitzen konfiantza tarteak txikiagotu direla ikus daiteke aurreko bi diagrametan. Etorkizuneko karakterizazioetarako gomendagarria izango litzateke proposatu den banaketari jarraitzea.

#### 4.5.3.3 Atez ateko bilketa sistemaren ondorioak

##### [Atez ateko bilketa sistemako estratuen alderaketa](#)

Ondoren aurkezten dena da atez ateko bilketa sistemako estratuetako etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren konposizioen alderaketa da.

Kontuan eduki beharra dago, ingurune hiritarreko elementuen emaitzen konfiantza tarteak handiak direla, aurrez azaldu den arrazoia medio.




4.11 Diagrama: Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren tarte orokorren alderaketa: Hiri lurra eta Hiri lurra ez dena

Errefusaren benetako ehunekoa asko jaisten da ingurune ez hiritarretan. Bestalde, eremu hauetan MOB eta Ontzien ehunekoa handiagoak dira. Kontuan hartu ingurune ez hiritarretan bi bilketa sistemak bateratzen direla.

Ingurune hiritarrari eta ez hiritarrari dagozkien estratuetako etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren konposizioan lorturiko desberdintasunak direla eta, bi estratuen kontsumo, bilketa eta birziklatze ohiturak desberdinak direla baieztatu daiteke. Etorkizunean, atez ateko ingurune ez hiritarretako hondakinen gainerako frakzioaren karakterizazioak egiteko, bitan banatzea gomendatzen da.



Gainerako frakzioaren bilketaren kalitate indizea % 82koa da ingurune hiritarreko estratuarentzat. Bestalde, ingurune ez hiritarrean (esekigailuak zein ekarpen puntuak) gainerako frakzioaren bilketaren kalitate indizea % 49koa da.



4.12 Diagrama: Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren bilketa kalitate indizeen alderaketa: Hiri lurra eta Hiri lurra ez dena

#### [Gipuzkoako atez ateko bilketa sistemaren emaitzak](#)

Azterketa honetan proposatu den sailkapenaren arabera, atez ateko bilketa sistema duen biztanleriaren banaketa ondokoa da:

| <b>Estratua</b>       | <b>% Biztanleria</b> |
|-----------------------|----------------------|
| Ingurune hiritarra    | % 90                 |
| Ingurune ez hiritarra | % 10                 |


4.22 Taula: Gipuzkoako Atez Ateko bilketa sistema duten biztanleriaren banaketa

Kontuan hartuta, alde batetik, atez ateko bilketa sistema duen biztanleriaren banaketa eta, bestetik, estratu bakoitzeko emaitzak, gaur egun atez ateko etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren konposizio orokorra lortzen da, betiere bi estratuetako pertsonen gainerako frakzioaren kuantitate berdina sortzen dutela suposatuz.




|                 | Batez bestekoa | Konfiantza tarte<br>(N=95%) | Beheko muga  | Goiko muga   |
|-----------------|----------------|-----------------------------|--------------|--------------|
| <b>MOB</b>      | <b>16.79</b>   | <b>2.82</b>                 | <b>13.97</b> | <b>19.61</b> |
| <b>ONTZIAK</b>  | <b>4.27</b>    | <b>1.73</b>                 | <b>2.54</b>  | <b>5.99</b>  |
| <b>ERREFUSA</b> | <b>78.94</b>   | <b>4.26</b>                 | <b>74.69</b> | <b>83.21</b> |

4.23 Taula: Gipuzkoako Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren analisi estatistiko orokorra




4.13 Diagrama: Gipuzkoako Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren batez besteko konposizio orokorra




4.14 Diagrama: Gipuzkoako Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren tarte orokorrak



Gainerako frakzioaren bilketaren kalitate indizea % 79koa da. % 21, berriz, materia birziklagarriari dagokio.



4.15 Diagrama: Gipuzkoako Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren materia Errefusa-Birziklagarria banaketa



4.16 Diagrama: Gipuzkoako Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren materia errefusaren konposizioa

4.17 Diagrama: Gipuzkoako Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren materia birziklagarriaren konposizioa




### [Gipuzkoako atez ateko xehetasun handiagoko emaitzak](#)


Atez ateko bilketa sistema duten Gipuzkoako etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren xehetasun handiagoko konposizioa azaltzen da ondorengo taulan.

|                       | Batez bestekoa | Beheko muga  | Goiko muga   |
|-----------------------|----------------|--------------|--------------|
| <b>MOK</b>            | 13.82          | 11.26        | 16.39        |
| <b>EGURRA</b>         | 0.09           | 0.01         | 0.19         |
| <b>PAPERA-KARTOIA</b> | 2.88           | 1.64         | 4.13         |
| <b>MOB</b>            | <b>16.79</b>   | <b>13.97</b> | <b>19.61</b> |
| <b>BEIRA</b>          | 0.85           | 0.26         | 1.44         |
| <b>ONTZI ARINAK</b>   | 3.41           | 2.16         | 4.67         |
| <b>ONTZIAK</b>        | <b>4.27</b>    | <b>2.54</b>  | <b>5.99</b>  |
| <b>MISTOA</b>         | 74.36          | 68.43        | 80.30        |
| <b>BESTE ERREFUSA</b> | 4.58           | 2.22         | 6.94         |
| <b>ERREFUSA</b>       | <b>78.94</b>   | <b>74.69</b> | <b>83.21</b> |

4.24 Taula: Gipuzkoako Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren analisi estatistiko xehatua



4.18 Diagrama: Gipuzkoako Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren batez besteko konposizio xehatua



4.19 Diagrama: Gipuzkoako Atez Ateko etxeetako hondakinen gainerako frakzioaren tarte xehatuak

- “Materia Mistoa” da, % 74ko ehunekoarekin, etxeetan sortutako etxe hondakinen gainerako frakzioaren konposizioan pisu handiena duen elementua.
- “Materia Organiko Konpostagarria (MOK)” da, % 14 ehunekoarekin, bigarren ehuneko handiena duen elementua.
- “Papera-Kartoia”, “Ontzi Arinak” eta “Beste Errefusa” % 3-5 artean aurkitzen dira.
- “Egurra” eta “Beira” elementuek, aldiz, ez dute % 1 gainditzen.

#### Materia mistoa

Materia mistoa karakterizazio matrizeko bi elementuk osatzen dute: alde batetik, pixoihal eta konpresak daude eta, bestetik, larrua eta oihalak. Konposizioaren % 70 pixoihal eta konpresei dagokie eta % 4, berriz, larru eta oihalei.

Kontuan izan behar da, pixoihal eta konpresek likido eta materia organiko kantitate garrantzitsuak eduki ohi dituztela.

#### Kontsumitu gabeko janari hondakinak

Etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren % 2 da kontsumitu gabeko janari hondakinei dagokien ehunekoa. Hala ere, kontsumitu gabeko janari hondakin gehienak materia organikoaren bilketan aurkitzen dira.

Atez Ateko Gipuzkoako etxeetan sorturiko gainerako frakzioaren karakterizazio matrizeko 43 elementuren arabera konposizioa **4.11 Eranskinean** dago.



#### 4.5.3.4 Aurreko karakterizazio emaitzekiko alderaketa

Lehenengo aldiz egiten da Gipuzkoako atez ateko bilketa sistemako etxeetan sorturiko etxe hondakinen gainerako frakzioaren karakterizazioa. Lorturiko emaitzek, beraz, etorkizunean egingo direnekin alderatzeko balioko dute, bilketa sistemaren garapena edo eboluzioa aztertu eta honela sistemaren hobekuntza planak gauzatu ahal izateko.



#### 4.5.4 4 edukiontzidun bilketa sistema duten etxeetan sorturiko etxe hondakinen eta merkataritza establezimenduek sorturiko gainerako frakzioaren karakterizazio emaitzak

##### 4.5.4.1 4 edukiontzidun bilketa sistema: ingurune hiritarreko estratu komertziala


Ondorengo taulak ingurune hiritar komertzialetik (merkataritza dentsitatea 0.8 baino handiagoa) zoriz hautatu diren lau edukiontzien emaitzak erakusten ditu. 9 laginketa egin dira, etxe hondakinen gainerako frakzioaren konposizioak ezagutzeko.

|                       | Donostia1    | Donostia2    | Donostia5    | Donostia6    |
|-----------------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| <b>MOK</b>            | 55.23        | 57.88        | 58.66        | 42.55        |
| <b>EGURRA</b>         | 0.42         | 0.00         | 0.00         | 0.00         |
| <b>PAPERA-KARTOIA</b> | 13.24        | 22.00        | 9.69         | 12.13        |
| <b>MOB</b>            | <b>68.89</b> | <b>79.88</b> | <b>68.34</b> | <b>54.68</b> |
